



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

FAMILIEN PARTE HARTZEA ESKOLAN. KASU BATEN AZTERKETA.

GRADU AMAIERAKO LANA

Egilea: Rodriguez Terrazas, Ainara.

Zuzendaria: Ibarrola Aguirre, Jose Antonio.

2020

AURKIBIDEA

1. Laburpena.....	2
2. Sarrera.....	3
3. Justifikazioa.....	4
4. Marko teorikoa.....	6-11
4.1. Hezkuntza sisteman gurasoen parte hartzearen egoera erreala	
4.2. Hezkuntza sistemetan familiek parte hartzeko oztopoak	
4.3. Familiak inplikatzeko moduak	
5. Helburuak.....	11
6. Metodologia	12-15
6.1. Datuak jasotzeko aurrera eramandako teknikak	
6.2. Ikertutako Umandi Ikastolaren testuingurua	
7. Emaitzak.....	15-26
7.1. Zuzendariari egindako elkarrizketa	
7.2. Irakasleari egindako elkarrizketa	
7.3. Ikertutako ikastolaren dokumentuen analisisia	
7.4. Gurasoei plazaratutako inkesta	
8. Ondorioak.....	26
9. Mugak eta hobekuntzak.....	31
10. Bibliografia.....	36
11. Eranskinak.....	39

1. LABURPENA

Hurrengo Gradu Amaierako Lanean, familien parte hartzea eskolan eta seme-alaben hezkuntza prozesuari buruz hitz egingo da. Horretarako, honen garrantziaz hitz egingo da eta dituen onurak plazaratu egingo dira. Bestalde, familien parte hartzea eta inplikazioa oztopatzen duten faktoreak aztertuko dira, eta era berean, hauei aurre egiteko proposamen batzuen adibideak adieraziko dira. Lanaren helburu nagusia gurasoen parte hartzea eta inplikazioa aztertzea da kasu erreal baten bitartez.

Horretarako, bilaketa bibliografiko zabala egin da eta baita kasu erreal baten azterketa kualitatiboa ere elkarriketa, inkesta eta dokumentuen analisiaren bitartez, teoria guzti hori benetan horrela ematen den ikuskatzeko. Ikerketa lana Gasteizko Umandi Ikastolan eraman da aurrera, gurasoen parte hartze eta inplikazio maila hori aztertzeko. Lanaren hasieran aipatuko diren helburuak jarraituz emaitza batzuk lortu dira parte hartze eta inplikazio horren maila hobeto ikusteko eta horietatik abiatuz, hobetzeko proposamenak plazaratzeko.

RESUMEN

En el próximo trabajo de fin de grado, se hablará sobre la participación de las familias en la escuela y el proceso de Educación de los hijos e hijas. Para ello, se hablará de su importancia y de sus beneficios. Por otro lado, se analizarán los factores que dificultan la participación e implicación de las familias y se expondrán ejemplos de algunas propuestas para hacerlas frente. El objetivo principal del trabajo es analizar la participación e implicación de los padres y madres a través de un caso real.

Para ello, se ha realizado una amplia búsqueda bibliográfica y un análisis cualitativo de un caso real a través de entrevistas, encuestas y análisis de los documentos, para comprobar si toda esta teoría se da realmente así. El trabajo de investigación se lleva a cabo en la Ikastola Umandi de Vitoria para analizar este grado de participación e implicación de los padres y madres. Siguiendo los objetivos que se comentarán al inicio del trabajo, se han obtenido unos resultados que permiten ver mejor el nivel de participación e implicación y, a partir de ahí, plantear propuestas de mejora.

ABSTRACT

Throughout this Final Degree Project, it will be discussed the participation of families both at school and in the educational process of their children. In order to investigate that, it will be spoken about its importance and its benefits. On the other hand, factors that difficult families' participation and implication with the school will be analyzed and also, some corrective proposals will be exposed to confront this situation. The pivotal objective of this project is to analyze the participation and implication of parents throughout a real case.

As support for this analysis, there has been made a vast bibliographic research and qualitative analysis of a real case that includes some interviews, polls and document analysis to make sure that this theory is really applied as it is said. This investigation has been made in Umandi Ikastola in Vitoria-Gasteiz in order to analyze the degree of participation and implication of families there. Following the objectives that will be exposed in the beginning of the project, there have been obtained some conclusions that allow to see areas that need an improvement, and as result of these, some improvement proposals will be explained.

2. SARRERA

Familien parte hartzea eskoletan hezkuntza sistemaren behar bat da. Hauen balioa funtsezkoa da bai emaitza akademikoak hobeak izateko baita sozietate demokratikoak eraikitzeko ere. Gaur egun egoera aldatu dela diote artikuluek, gurasoen presentzia handia dela eskoletan eta hauen beharrari garrantzia ematen zaiola. Edonon topatu daiteke familiak eta ikastolak umeen hezkuntza prozesuan eragiten duten agenteak direla eta elkarren beharra dutela arrakastara eta ikaskuntza esanguratsura iristeko.

Gaur egun eskola inklusiboaz hitz egiterakoan berekin darama hezkuntza prozesuan eragiten duten agenteen arteko harreman aktibo eta positiboaz hitz egitea, elkarrekin umeentzako hoberena dena diseinatzea eta aurrera eraman nahi den hezkuntza zein den zehaztea inplikatzeko duena. Bide horrek hezkuntza inklusibora daramatza non denok modu aktibo batean parte hartzen duten, eskola eraldatuz. Bi eragile hauek rol desberdinak izan arren, helburu berdina dute ikasleek hezkuntza prozesua ahalik eta hoberena eta kalitatezkoa izatea dena. XXI. mendean harreman

honetaz hitz egitea ez litzateke erronka bat izan behar, hezkuntza inklusibo eta kalitatezkoaz hitz egitea baita (Calvo, Verdugo & Amor, 2016).

Eskolan praktikan egondako garaia aprobetxatuz Gasteizko ikastola bat ikertuko da, Umandi Ikastola hain zuzen ere, horren errealitatea behatu eta aztertu ahal izateko. Ikerketa lan hau helburu nagusi batean oinarriturik egongo da, Umandi Ikastolako egoera aztertzea izango dena gurasoen inplikazio eta parte hartzeari dagokionez. Baina horretaz aparte, bigarren helburu batzuetan oinarriturik egongo da ere, ondorengoak direnak: ikastolak zein irakasleek eskaintzen dituzten aukerak aztertzea, parte hartzea oztopatzen duten alderdiak aztertzea, parte hartze horren eragina ikustea, irakasle eta gurasoen arteko bilguneak aztertzea eta parte hartze eta inplikazio hau sustatzeko hobekuntza proposamenak ematea.

Lehenik eta behin, azterketa bibliografiko zabal batetik ateratako datu eta informazio teorikoa plazaratuko da familien parte hartze eta inplikazioaren inguruan, seme-alaben hezkuntza prozesuari dagokionez.

Ondoren, lanaren helburuak zeintzuk diren zehaztuko dira eta ikerketa lana aurrera eramateko erabiliko den metodologia adieraziko da. Kasu honetan teknika kualitatiboak eramango dira aurrera: elkarrizketak, inkestak eta ikastolako dokumentuen analisia. Honekin lotuta, ikerketa lan horretatik ateratako datuen analisia agertuko da eta honi lotutako ondorioak.

Amaitzeko, datu eta informazio bilketa osoa egin ostean eta emaitzak aztertu ostean, hobetzeko proposamenak adierazi egingo dira familien parte hartzea eta inplikazioa seme-alaben hezkuntza prozesuan areagotzeko, kasu honetan ikertu den Umandi Ikastolari zuzenduak egongo direnak.

3. JUSTIFIKAZIOA

Gradu amaierako lana burutzeko “Familien parte hartzea eskoletan eta hezkuntza sisteman” gaia aukeratu dut irakasle batentzat funtsezkoa den gai bat iruditzen zaidalako, garrantzia handikoa izateaz aparte, eta baita interesgarria ikusten dudalako ere.

Argi dago eskolaren papera oso garrantzitsua dela umeen hezkuntzan txikitatik ordu asko ematen dituztelako bertan, baina familiak ere zeresan handia dauka ikasketa eta garapen horretan haiek baitira heziketa horretan parte hartzen duten lehenengoak, eta hau ezin da ahaztu.

Bi agente hauen elkarlana beharrezkotzat jotzen dut umeak modu egoki batean aurrera egin dezaten eta ahalik eta hezkuntza hobereana bereganatu dezaten. Gradu honetan honen inguruko informaziorik ez dudanez jaso, nire formakuntzarako egokia izango delakoan hartu dut, gai oso inportantea eta interesgarria iruditzeaz aparte.

Horretaz aparte, oso garrantzitsua da kontuan eta kontziente izatea umeen garapena eta hezkuntza bion arazoa dela, eta baita bion ardura eta lana ere. Hau da, biok batera lan egin behar dute ikasleek ikaskuntza esanguratsua eta garapen integrala lortzeko. Izan ere, askoz aberasgarriagoa izango da umeen hezkuntzarako bion partetik inplikazioa jasotzea, inplikazio horrek eragin positiboa eragiten baitu hauengan eta baita sentimendu positiboak zein gertutasuna ere. Hau emateko argi izan behar da bi hauen artean harreman egoki bat sortzea oso egokia dela, non elkarren artean konfiantza dagoen eta elkarrekin lan egiteko nahia. Beraz, bi agente beharrezko hauen artean erlazioa egokia eta gertukoa izatea oso lagungarria da. Erlazio estu horrek jarraipen egoki bat egotea eragingo du, elkarren artean lan egingo dute eta errazago hurbildu egingo dira ume horren beharretara.

Aipatutako guztia dela eta aukeratu izan dut gaia. Gauza asko entzun izan ditut gurasoen parte hartzearen inguruan eta egoera benetan zein den ikusi nahi dut. Gainera, beharrezkotzat jotzen dut irakasle batek honen inguruan jakitea eta egoera nola dagoen ikustea. Hori dela eta, irakasle izango naizen moduan gaia aztertu eta horretan sakondu nahi dut urte batzuk barru nire burua honen aurrean aurkituko dudalako. Irakasle orok familien parte hartzea sustatu beharko lukete eta familiekin batera jardun ikasleen ahalik eta garapen integralena eta hezkuntza esanguratsuen lortzeko. Ni irakasle izango naizen moduan, behintzat, horretan saiatuko naiz eta ahalegin guztia egingo dut egoera hobetu dadin edo nahi den egoera perfektu horretara heldu gaitezen.

4. MARKO TEORIKOA

Hurtzaroen ume baten heziketan parte hartzen duten bi instituzio oso garrantzitsuak familia eta eskola dira. Bi hauen lana lehenengo momentuan independientea ematen badu ere, ez da horrela. Familiak zein eskolak bata bestea behar du ikaslearen garapen integral eta arrakastatsua lortzeko, eta hauek batera lan egiten ez dutenean da arazoak etortzen direnean, eta oztopoak umearen heziketan. Ikaslearentzat familia da ingurune hezigarri nagusia, eta eskola eragile honen sopikuna zeregin zail horretan. Hori dela eta, beharrezkoa da bi hauen lankidetzaren umeen hezkuntza integrala lortu nahi bada (Aguado, 2010).

Umeen lehenengo sozializazio momentuan familia da maila gorena; esaterako, irizpideak markatzen ditu, jarrerak, baloreak, arauen iraunkortasuna, autokontrola, ikaskuntzarako motibazioa, ahalegin pertsonala, oreka emozionala, etab. Lehenengo urteetan familia da umea eta ingurunearen arteko erlazioan eragiten duen eragile nagusia, funtsezko papera izanez umearen garapen pertsonalean eta sozialean. Baina eragile integratzaile hau zalantzan jarrita dago gaur egun. Izan ere, lehen argi zegoen familiak umea hezten zuela eta eskolak irakasten zuela, baina urteekin gauza aldatzen joan da eta orain eskola bien funtzioak hartzen ari da. Hala ere, umeek etxean ematen duten denbora asko denez eta emantzipazio dataren atzerapena dela eta, eragile honen ardura hezkuntza arloan ezinbestekoa izaten jarraitzen du (Bolívar, 2006).

Bizi izan dugu momentu bat non modu kontziente edo inkontziente batean familiek zituzten arazoak eta kezak eskolei leporatu egin zaien funtzionamenduan atsekabea eraginduz eta ondoeza sentituz irakasleengan eskakizunak ez betetzeagatik. Familietan emandako aldaketa sozialek ere lagundu egin dute hauen hezkuntza funtzio batzuen ardura eskolei eskuordetzera. Hau dela eta, ikuspegi berri hauek komunitate planteamenduak eskatu egiten dituzte (Bolívar, 2006).

Egoera honetan, azken hamarkadan, eskoletan familien inplikazioaren beharra dago. Ez da eskolek bakarrik ezin diotelako ikaslearen hezkuntzari aurre egin, baizik eta ezin diotelako uko egin ikasleak gizarterako heztearen ideari eta hori dela eta ezin dute modu isolatu batean egin (Bolívar, 2006).

XX. mendeko 70 hamarkadatik hona gizarteak aldaketa bortitzak jaso izan ditu urteetan zehar eta horren ondorioz hezkuntza sistemak baita eskolak ere, aldaketa

horiek pairatu izan dituzte. Poliki-poliki familiak geroz eta gehiago sartzen joan dira ikastoletan; esaterako, “La Ley General de Educación” lehenengo legea izan zen zeinetan familien parte hartzea eskolan beharrezkoa zen. Honek, guraso elkarteak eta eskola kontseiluak sortu zituen kontsulta organo gisa (Ley General de Educación, 1970). Lege aldaketek ikastetxeak erabateko erakundea izatera eraman ditu, eta honen ondorioz, pertsonalitatearen formakuntza integrala lantzeraz; hau da, formakuntza morala, gizalegezkoa eta lehenengo sozializazioa (garapen kognitiboa eta kulturala) (González, Repáraz & Sanz, 2016).

Gurasoen eskubideetan arreta jarriz, gaur egun Europako herrialde guztiek familien parte hartzeari mesede egiteko sistema antolatua daukate nahiz eta organismo hauen mailak desberdinak izan herrialde batetik bestera. Gurasoen parte hartzea bermatzeko bi bide erabilienak gurasoen elkarteak eta hezkuntza komunitatea osatzen duten sektore desberdinen organoen inklusioa dira (Egido, 2014).

Guraso elkarteak Europar Batasuneko estatu guztietan existitzen dira eta normalena, nazional eta eskualdeko federazio eta konfederazioetan antolatzea da. Elkarte hauek autonomikoki jokatzeko dute eta herrialde gehienetan bakarrik ikasleen gurasoez osatuak daude; Ingalaterran, Eskozian eta Galesen irakasle eta gurasoez osatutako elkarteak funtzionatzen dute. Hauen zereginak ikasleentzako irteerekin, bisita kulturekin eta denbora librerako ekintzen antolaketarekin erlazionatuta egon ohi dira (Egido, 2014).

Gurasoen parte hartzea printzipio bat da eskola sistementzat Europar eremu ia osoan. Izan ere, printzipio hau ez da soilik hezkuntza demokratizaziorako, baizik eta hezkuntza beharretara egokitzeko eta irakaskuntza kalitatea ziurtatzeko bide bat da. Arrazoi hau dela eta, Europar herrialde gehienek hezkuntza komunitate desberdinen parte hartzea bermatzeko mekanismo desberdinak daukate, zeinen artean gurasoak aurkitzen dira (Egido, 2014).


4.1 Hezkuntza sisteman gurasoen parte hartzearen egoera errealak

Europa mailan gurasoen parte hartzearen inguruan egindako azkenetariko lan bat “Indicadores de Participación de los Padres en la Enseñanza Obligatoria (IPPE)” deiturikoa da. Ikerketa lan honen helburua Europako hezkuntza sisteman gurasoen parte hartzea neurtzeko adierazgarriak egitea izan da. Adierazgarrien definiziorako

gurasoen eskubideak bitan banatzen ditu: indibidualak eta kolektiboak. Zehazki, adierazgarriak gurasoen lau eskubideetatik analizatu egiten dira, ondorengoak direnak: informazioa, hautaketa, baliabide eta parte hartzea organo formaletan.

Ikerketaren emaitzak adierazten dute lau adierazgarri hauek kontuan hartuta gurasoen parte hartze maila handiena daukanak Gales dela. Ordea, Italia eta Luxemburgo azkenengoak agertzen dira (2.1 grafikoa). Herrialdeen batez bestekoa 72 puntutakoa da eta honen gainetik Espainia, Frantzia Malta, Austria eta Liechtenstein aurki ditzakegu; ordea, azpitik, Portugal, Alemania, etab.

Figura 2.1.- Resultados globales sobre los derechos de participación de los padres en la Enseñanza Obligatoria en los sistemas educativos participantes en el proyecto IPPE




Fuente: Rizzi et al. (2014).

Rizzi et al, in Egido, 2014.

Beharrezko eskolako organo formaletan gurasoen parte hartzearen inguruan, ikerketa ondorengo lau adierazgarrien bitartez egiten da (2.2 grafikoa): gurasoen parte hartze organoen existentzia eta hauen kompetentziak, hezkuntza sistemako maila desberdinetan gurasoen irudikapen mota, gurasoen iritzien bilketa estatuaren partetik eta gurasoen formakuntzarako sistemen izatea. Honetan, herrialdeen batez bestekoa 43 puntutakoa da eta guztiak gainetik agertzen dira Austria, Errumania, Suedia, Suitza eta Italia izan ezik (Egido, 2014).

Figura 2.2.- Resultados sobre el derecho de participación de los padres en los órganos formales en la Enseñanza Obligatoria en los sistemas educativos participantes en el proyecto IPPE



Fuente: Rizzi et al. (2014).

Rizzi et al, in Egido, 2014.

Gai honen inguruan egindako beste ikerketa bat Europar Sareak aurrera eramandakoa da zeinetan Europako 8 herrialdetako gurasoen eta eskolen arteko kooperazioaren inguruko egungo egoera analizatzen den (Copash, 2006, in Egido, 2014); Alemania, Austria, Danimarka, Eslovenia, Grezia, Hungaria, Polonia eta Erresuma Batua. Ikerketa honek adierazten du, Danimarka kenduta gainerako herrialdeek legeria espezifikoren bat dutela informazio eta kontsulta eskubideei dagokionez. Legeria herrialdearen arabera desberdina den arren, ikerketak adierazten du gurasoen eta eskolaren arteko kooperazioa sustatzeko eremu gehiago gehitu behar direla ez baita lortzen kooperazio egoki bat. Hau gertatzen da gehienetan aurrera eramaten diren ekintzak gurasoei informazioa soilik transmitzeko direlako ikastolaren partetik; hala ere, zenbait eskoletan elkarrekintza hau handitzen ari da eta familiak eskolaren funtzionamendu alderdi desberdinen ebaluazioan sartzen ari dira.

Ikerlan honen ondorio orokorra da eskolek eta gurasoek modu handiago batean elkarrekin lan egin nahi badute, ez dutela behar bakarrik antolamendu legalak, baizik eta horretara bideratutako egituren sorkuntza. Garrantzitsua da ikastola bakoitzak bere ikasleriari egokitutako metodoak eta prozedurak garatzea, ezin da kooperazioa bultzatzeko guztiontzako eredu bat egon(Egido, 2014).

4.2 Hezkuntza sistemetan familiek parte hartzeko oztopoak

Egoera ohikoena ez da bi eragile hauek elkarrekin lan egiten ikustea, baizik eta gurasoak eta irakasleak aldentuta bizitzea, batzuetan aurka eginez, elkarren artean errua leporatuz ikasleen errendimendu baxuaren arduradunak izateagatik. Faktore asko daude eragina dutenak elkarrekintza honetan, baina horri gehitzen zaio hezkuntza sistemetan oraindik dagoen begirada tradizional hori, rol bereizketa nabarmenarekin (Egido, 2014).

Oztopo nagusietako bat gurasoek gai honen inguruan erakusten duten axolagabetasuna da, zuzendari eta irakasle batzuen ustez. Gurasoen partetik gogogabetasun eta interes falta hori da eskolan parte hartzea galarazten duena. Gainera, egoera hau larriagotuta ikusten da familia askok haien seme-alaben hezkuntza eskolen esku dagoela pentsatzeko duten moduagatik, haien oinarrizko eginkizunak alde batera utziz.

Kontuan hartu behar da gurasoek oztopo asko aurkitzen dituztela parte hartzeko momentuan. Oinarrizkoena da irakaslearen partetik gaiarekiko bizirauten duen erresistentzia, profesionalismoan oinarrituz. Izan ere, askok oraindik ere gurasoen parte hartze nahi hori haien lanean interferentzia bat bezala ikusten dute. Hori dela eta, familien parte hartzea gai ez hain garrantzitsuetan sustatu egiten da; esaterako, jaialdien antolaketan, kanpoko ekintzen antolaketan, etab. ez ordea gai pedagogikoetan, beraiekin ez doan gaia dela deritzotelako. Pentsamendu tradizional honek eragiten du irakaskuntza bakarrik eskolaren eta irakasleen zeregina izatea parte hartzea eragotziz. Beraz, funtsezkoa da irakasleen formakuntza kooperaziora bideratzea; izan ere, irakasleek gurasoak behar dituzte hezkuntza lan hau haiek bakarrik ez eramateko, oso neketsua eta zaila baita.

Egia da zenbaitetan gurasoak ez direla gai eskolako gai curricularrak edo eskolaren antolamenduaren inguruko gaiak aurrera eramateko hizkuntza pedagogikoak edo arauen konplexutasunak eragozten dutelako. Hori dela eta, gurasoak formakuntzak behar dituzte ondo prestatuta egoteko eta parte hartze hori sustatu ahala izateko, hizkuntza tekniko hori guztien hizkuntzara egokitzeaz aparte. Horretaz aparte, guraso askok ez dute denbora nahikorik haien seme-alaben hezkuntzan inplikazio handiagoa izateko lanorduak ez dielako uzten. Orokorrean, lan-legeria ez da egokitzen gurasoen parte hartzeko eskubidera, aldatu beharreko gauza izanez (Egido, 2014).

4. 3 Familiak inplikatzeko moduak

Familiek parte hartzen ez dutela edo haien inplikazioa nahikoa ez dela esaterakoan eskolek haien buruei galdetu behar diete ea hau sustatzeko egin dezaketen guztia egiten duten edo ez. Izan ere, gurasoen inplikazioa, modu batean, eskolen eskuetan dago ere (Bolívar, 2006).

Familiekin erlazio gehiago izateko muga apurtu duten eskola horiek haien lanean duen garrantziaz ohartu dira; hau da, familien euskarria, ikasleen ikaskuntzan hobekuntza, eskola ospearen hobekuntza, etab. Gurasoen inplikazioa eta lankidetzara marra zuzen batean doa; hau da, etxean haien seme-alaben ikaskuntzaz arduratzetik eskolan partaide bezala inplikatzera. Parte hartze eta inplikazio hau sustatzeko era desberdinak eratzen ari dira, ondorengoak direnak:

- **Familia eta eskolen arteko lotura hobetzea.** Guraso, eskolen eta irakasleen artean harreman jariakor eta maizkorra izatea etxekolanen, helburuen eta garapenen inguruan. Hau hezkuntza arrakastatsua lortzeko beharrezko baldintza da, eta lortzeko egin daitezken gauzak ondorengoak dira: gurasoekin bilerak, bakarkako bilerak, etab.
- **Hezkuntza guneko konfigurazioan parte hartzea.** Azken hamarkadako hezkuntza erreformak handitu egin dute gurasoen ekimen ahalmena. Lerro hezitzaile komuna eman beharko litzateke guraso eta eskolen artean elkarren artean garatzen joan behar duten prozesu horretan. Parte hartzea zehazteko prozesua eta elkarbizitza arauen eraketa modua izan behar dira guraso, irakasle eta ikasleak inplikatzeko.
- **Eskolako zerbitzu osagarrien ematea.** Hau AMPAko ekimen garrantzitsuena izan da gaur egun arte. Izan ere, hauek antolamendu sozialetatik eratorritako arazoak (lana, ordutegia, etab.) konpondu egiten dituzte zerbitzu osagarriak emanez, irakasleen beharrak eta funtzioak errespetatuz. Horretaz aparte, legeriak esaten duen bezala instalakuntzak komunitatearen eskura jarri daitezke hezkuntza ekintzak garatzeko.
- **Udal ekintzaren eremua.** Familiek eremu honetan esku hartu behar dute hezkuntza udal organoen bitartez. Hau da, oso egokia da hiri desberdinen artean hezkuntzaren onurako kultura errekurtsuak bultzatzeko ekintzak planifikatzea.
- **Hezkuntza komunitate programak.** Maila globalean eskola eta komunitatearen artean erlazio berriak ezartzea eskatzen da: eskolen hezkuntza ekintzak komunitate programekin lotzea non familiek eta hauen elkarrekin batasun papera eduki dezaketen. Hezkuntza potentzialtasuna handitzeko familiak inplikarazi behar dira, baita erakunde ofizial (udaletxea) eta ez ofizialekin (laguntza elkarrekin, boluntariora) modu koordinatu batean aritzea (Bolívar, 2006).

5. HELBURUAK

Aukeratutako gaia azaldu ondoren beharrezkoa da lanaren helburuak zehaztea, puntu honetan plazaratuko direnak. Ikerketa lan honen helburu nagusia ikastola baten, kasu honetan Umandi Ikastola, egoera aztertzea izango da gurasoen inplikazio eta

parte hartzeari dagokionez egoera erreal baten bitartez. Hala ere, helburu nagusia hau izan arren, bigarren mailako helburu batzuk ageri dira, ondorengoak direnak:

- Ikastolak zein irakasleek eskaintzen dituzten aukerak aztertzea.
- Parte hartzea oztopatzen duten alderdiak aztertzea.
- Parte hartze horren eragina ikustea.
- Irakasle eta gurasoen arteko bilguneak aztertzea.
- Parte hartze eta inplikazio hau sustatzeko hobekuntza proposamenak ematea.

6. METODOLOGIA

Lanaren atal honetan liburuetan, artikuluetan, web orrialdeetan, etab. datu teorikoen jasoketaren ondoren eta behin lanaren helburuak zehaztu ondoren, lan honen metodologia motaren aukeraketa zein den azalduko da eta aurrera eramango da, kasu honetan ikerketa zeinek aurreko puntuan izandako helburuak honen oinarria izango dira.

Ikerketa hau, esan dudan moduan, aurretik aipatutako helburu horiek lortzeko nahian egin da. Hau egiteko momentuko praktikaldi garaia aprobetxatuz, Gasteizko Umandi Ikastolan egindako ikerketa plazaratuko da Lehen Hezkuntzako 6. C taldearekin egindakoa hain zuzen ere, zeinetan familiek parte hartzeko zer nolako aukerak dituzten eta ondorioz haien inplikazioa zenbatekoa den aztertu da. Prozesuaren iraupena gutxi gorabehera hilabete eta erdi ingurukoa izan da, abenduan hasi eta urtarrilean amaitu, praktiketan egondako denboran hain zuzen ere.

Lan honetan erabilitako metodologia mota deskriptiboa eta kualitatiboa izan da honen bitartez eskuratutako datuak aztertzea beharrezkoa baita ondoren horiek plazaratu eta laburtu ahal izateko. Lan honen lagina behin neurtua izan da eta horren bitartez informazio zuzena lortu da, datu kualitatiboak hain zuzen ere, zeintzuen bitartez emaitzak atera izan dira ondoren hauek analizatzeko eta hobekuntzak proposatu ahal izateko.

Aurrera eraman diren teknika kualitatibo hauek profesional desberdinei (zuzendariari eta irakasle bati) egindako elkarrizketak, gurasoei egindako inkesta eta

Umandi Ikastolako dokumentu ofizialen analisia izan dira, zeintzuk egiteko eskolarekin harreman zuzena izatea ezinbestekoa izan da.

6.1 Datuak jasotzeko aurrera eramandako teknikak

- Umandi Ikastolako profesional desberdinei egindako elkarrizketak. Guztira bi izan dira egin diren elkarrizketak, bata ikastolako zuzendariari eta bestea 6. C-ko irakasleari. Elkarrizketa erdi egituratuak erabili izan dira non aurretik prestatutako gidoi bat jarraitu da helburuak lortzeko esanguratsuenak ziren galderekin. Horretaz aparte, erdi egituratuak izan dira elkarrizketak egiten ziren bitartean bururatutako galderak egiten zirelako beste bat osatzeko.
 - Zuzendariari elkarrizketa egiteko arrazoia urte asko daramatzako ikastolan izan da eta primeran ezagutzen baitu gurasoen parte hartzea, baita honek izandako eboluzioa ere. Berarengana jo zenean honen zergatia zein zen azaldu zitzaion eta elkarrizketaren eguna eta ordua adostu ziren. Horretaz aparte, elkarrizketa aurrera eraman baino egun batzuk lehenago galderak helarazi zitzaizkion aurretik zeri buruz galdetuko zitzaion jakiteko. Elkarrizketa hau libre zegoen ikastolako gela batean eraman zen aurrera, eskola orduetan, eta grabatua izan zen elkarrizketan zentratu ahal izateko eta ondoren, hau transkribatu eta hobeto analizatu ahal izateko.
 - Irakasleari elkarrizketa egiteko arrazoia gela horretako gurasoen parte hartze maila eta eboluzioa ikustea izan da, eta baita gaiaren inguruko irakaslearen iritzia jakitea ere. Zuzendariarekin egin zen bezala, honi galderak egun batzuk lehenago eman zitzaizkion eta eguna adostu ondoren aurrera eraman zen; bere gelan hain zuzen ere, eskola orduetatik kanpo.
- Umandi Ikastolako dokumentuen analisia aztertzearen arrazoia ikastolak familiei zein motatako garrantzia eta parte hartzeko zer-nolako aukerak ematen dizkien eta zein esparrutan behatzea izan da. Horretarako, Umandi Ikastolako Hezkuntza Proiektua eta Urteko Plana aztertu izan dira lagina handitzeko asmoz. Azterketa hau egin baino lehen taula bat egin da ikergaiak zehazteko asmoz analisia zehatza izateko. Dokumentu bi hauek ikastolakoak direnez zuzendariarengana jo behar izan da hauek lortu ahal izateko.

- Gurasoei pasatutako inkesta galdera zehatz eta argiz osatuta dago lehenengo pertsonan haien parte hartze eta inplikazioari buruzko datuak lortu ahal izateko. Inkesta honen helburua haien parte hartze eta inplikazioaren inguruko iritzia, eragina eta honen oztopoak aztertzea izan da. Horretarako, inkestako galdera hauek plazaratu baino lehen irakaslearekin aztertu ziren egokiak ziren edo ez ikusteko, ulermen aldetik. Behin datuak jasota, hauek grafikoetan plazaratu izan dira Microsoft Excel-en bitartez argiago ikusteko.

Eranskinetan puntu honetan aipatutako tekniken eranskinak agertuko dira; hau da, elkarrizketa bakoitzaren galderak, bi dokumentuen analisisa egiteko erabilitako ikergaiak eta gurasoei pasatutako inkesta. Bi elkarrizketak 12 galdez osatuta daude, bi dokumentuen azterketa egiteko 6 ikergai kontuan izan dira eta gurasoei egindako inkestan 6 galdera plazaratu izan dira euskaraz zein gazteleraz hobeto moldatzen ziren hizkuntzan egin ahal izateko. Honen aurretik, irakaslearekin hitz egin zen bi hizkuntza hauetan aritzen zen gurasorik bazegoen jakiteko eta beraz, beste hizkuntza batean galderak plazaratu ahal izateko.

Aipatutako teknika desberdin hauen bidez jasotako datu eta informazioari esker, eta hau ondo aztertu ondoren, ondorio batzuk atera ahal izan dira hurrengo puntuan agertuko direnak, hauen bitartez ostean hobetzeko proposamenak egin ahal izateko.

6. 2 Ikertutako Umandi Ikastolaren testuingurua

Ikerketa hau Gasteizko ikastola batean egin da, Umandi Ikastolan hain zuzen ere. Honen aukeraketa Practicum III-a bertan burutzeagatik eta ikasle ohia izateagatik izan da. Umandi ikastola 1974an eraikia izan zen eta Lakua-Arriaga auzoan kokatuta dago, Francisco Javier de Landaburu kalean. Gaur egun, ikasleriaren %95a auzoan bertan bizi da. Ikastetxean Haur eta Lehen Hezkuntza "D" ereduan eskaintzen dira. Haur Hezkuntzak (borondatezkoa eta doakoa) lau ikasturteko iraupena du; hau da, 2-3 urtekoak, lehenengo zikloa osatzen dute eta bost gela daude. 4-5 urtekoak bigarren zikloa osatzen dute eta bakoitzeko hiru gela daude. Lehen Hezkuntzak (derrigorrezkoa eta doakoa) ordea, sei ikasturte ditu, 3 zikloetan banatuta eta guztira 18 gela daude. Beraz, tamaina aldetik nahiko handia da; 650 ume daude aurten eta 55 irakasle inguru.

Umandi Ikastolak hainbat balore ditu zeintzuk ikastolako dokumentuetan agertzen dira. Horietako bat ikastola euskalduna izatea da. Ikasleak euskalduntzeaz gain euskara beraren normalizazioa bilatzen dute, euskara komunikazio hizkuntza izanik eta euskal ohiturak eta kultura bultzatuz. Beste bat publikoa izatea da eta horren heinean, ondorengo printzipioetan oinarritzen dira: akonfesionala eta laikoa izatea, inklusiboa, plurala eta hezkidetzat bultzatzea. Bestalde, beraien burua ikastola berritzailetzat dute, eguneroko errealitatean murgilduta bizi den eskola bat bezala, etengabe egokituz eta formatuz doana. Garapen integral eta globalari garrantzia handia ematen diote ere, ikasle bakoitza izaki globala denez, aukera ematen diote izateko, bizitzeko eta ikasteko. Horretaz gain, haientzat talde lanean aritzea oinarri esanguratsu bat da (hezkuntza komunitateak), antzematen dituzten hutsuneak identifikatuz eta hauei erantzun egokiak bultzatuz. Bukatzeko, pertsona elebidunak sortzea da haien helburua (euskara eta gaztelera) eta 3. hizkuntzan (ingelesean) maila ona lortzea (Umandi Ikastolako Hezkuntza proiektua, d.g.).

7. EMAITZAK

Goian aipatutako helburuak lortzeko teknika desberdinak erabili izan dira modu zuzenean interesgarriak eta behatu beharreko puntuak analizatzeko. Teknika desberdin hauen bitartez gurasoen parte hartzea eta inplikazioa ikastolan zenbatekoa den, nola parte hartzen duten, haien parte hartze eta inplikazioari buruz zer uste duten, ikastolako dokumentu nagusietan zenbateko garrantzia ematen zaion gurasoen parte hartzeari eta inplikazioari ikusteko, AMPA, Eskola Kontseilua eta Guraso Eskolari buruz informazioa jasotzeko, guraso eta irakasleen arteko erlazioa eta komunikazioa nolakoa den eta irakasleak gurasoen parte hartzeari buruz duen iritzia buruzko informazioa lortu da. Behin informazioa jaso eta datuen azterketa egin ondoren, lanaren puntu honetan aipatutako teknika desberdinen bitartez ateratako emaitzak plazaratu egingo dira, ondorengoak direnak:

- 7.1 Umandi Ikastolako zuzendariari egindako elkarrizketa (Eranskina I)

Datu zehatzak bereganatzeko eta gurasoen parte hartzea eta inplikazioa aztertzeko Umandi Ikastolako zuzendariari egin zaio elkarrizketa. Honek urte asko daramatza ikastolan, 1982tik, beraz pertsona egokiena izan da ikerketa hau aurrera eramateko.

Urte batzuk lehenago, Umandi ikastola pribatua zen, patronala esaten den bezala, irakasleak ziren langileak eta gurasoak patronalak; hau da, haiek eramaten zuten ikastola. Beraiek agintzen zuten, pedagogikoa den horretan izan ezik, baina beste guztietan bai, zuzentzeko eran, etab. Gurasoek zuten botere gehiena eta irakasleak hauen soldatapean zeuden. Publikoa bilakatzean, 1994an, gauza aldatzen hasi zen. Hor jada, ez ziren haiek agintzen zutenak, ez ziren nagusiak. Irakasleek botere hau bereganatu zuten eta malgutasun gehiago lortu zuten haien ideiak burutzeko. Gainera, hasieran Gasteiz osotik etortzen zen jendea eta behin publiko bihurtzean auzoko ikasleek lehentasuna zuten, gaur egun jarraitzen duen moduan.

Familiek normalean ikastolan parte hartzen dutela dio zuzendariak. Hasteko, Eskola Kontseiluan, non 15 familia dauden. Hau ikastolako organo gorena da zeinek urteko plangintza, egutegia eta urte amaierako memoria onartzen duen. Gero AMPA aurki daiteke, non guraso guztiek hartzen duten parte; hau da, guraso guztiak dira AMPA-ko kideak eta berak ere badu batzorde bat non arlo desberdinak lantzen dituzten. Azkenik Guraso Eskola dago non guraso talde bat elkartzen den eta ikaskuntzarako gai interesgarriak zeintzuk diren erabakitzen duten. Bertan hitzaldiak eta tailerrak antolatzen dituzte gurasoek parte gehiago hartu ahal izateko umeak ikastolan dauden bitartean.

Zuzendariak dio ikastolak ez duela trabarik jartzen gurasoen parte hartzea sustatzeko. Interesgarriak diren edozein gaietan adituak izanez gero haien laguntza asko eskertzen dute eta parte hartzera bultzatzen diete; esaterako, lanbideen gaia lantzerakoan gelara haiena ekartzeko, etxean dituzten animaliei buruz hitz egiteko, hitzaldiak antolatzen direnean gaia azaltzen diete eta horien garrantzia hauek erakartzeko, etab. Hizkuntzaren aldetik, euskara ez jakitekotan beste saioetan sartzeko aukera eskaintzen dute, ingelesa zein gaztelerako orduetan. Komunikazioa etengabekoa izaten saiatzen dira ohar, Whatsapp, zein emailaren bidez.

Hala ere, parte hartzeko aurkeztzen zaizkien aukerak izanda ere “ez dira familia asko etortzen, gehien bat, etortzen direnak gutxien behar dutenak dira; bilerak esaterako, familia konkretu batzuei begira egiten dira eta hauek ez dira agertzen”. “Bakarrik ikusten da interesa eskolako jaietan, inauterietan, Olentzeron edo halako festa handitan”.

Gainerako esparruetan bezala, aipatzen du badaudela haien seme-alaben ikaskuntza-irakaskuntza prozesuetan esku hartzen duten familiak eta inplikatzeko ez direnak, eta hau oso argi ikusten dela. “Nire ustez, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua familien eta irakasleen arteko zerbait da eta biok bat egin behar dute helburu gehiago lortzeko eta bide batez, umeen garapena egokia izateko”. Horrez gain, gurasoen inplikazio horri esker umeek beste gogo batekin hartzen dute hau bere lana baloratua dela ikusten dutelako bere gurasoengandik; denbora eskaintzen dietela ikusteak motibazioa eragiten die umei. “Partaide sentitzen diren momentuan beraien erantzukizuna dela ikusten dute eta inplikazio maila handitu egiten da”.

Horretaz aparte, aitortzen du ikastolan guraso eta irakasleen ekarpeni ez zaiela garrantzia bera ematen. “Batuetan ikusten da irakasleok ez diegula gurasoei ikastolaren parte izaten uzten eta “irakasle esparrua” mantentzen dugula ematen du. Hau batez ere, urte asko daramatzaten irakasleekin gertatzen da ikastola haien esparrua dela uste baitute eta gehiago kostatzen zaie gurasoak ikastolako esparruan modu zuzenago batean sartzea. Ez dute lotura ikusten ezta nola bion artean umeentzako gauza hobetoak egin ditzakegula”. Hau aldatu beharreko zerbait dela adierazten du bion arteko lana baita umeen garapena egokia izatea. Hori dela eta, etorkizunari begira hobetzeko ideia bat “ikaskuntza komunitateak” direla dio, nahiz eta lan hau zuzendaritza hartuko duen hurrengoari utzi bera bi urte barru erretiratuko baita. Sustapen honi ekiteko “zuzendaritza gurasoei bidali nahi zaien mezua edozein gauzatarako hurbildu daitezkeela da, gertutasuna bilatzeko eta bide batez inplikazioa”.

- 7.2 Umandi Ikastolako irakasleari egindako elkarrizketa (Eranskina II)

Irakasleari egindako elkarrizketan gurasoen parte hartze eta inplikazioagatik galdetu zaio haien seme-alaben hezkuntza prozesuari dagokionez. Honek dio parte hartzeko aukera ematen zaiela baina gutxitan hartzen dutela parte, betikoak kenduta beti prest daudenak edozertarako nahiz eta ordutegia ondo ez etorri. Parte hartzeko aukera hori esparru desberdinetan aurkezten zaiela dio; esaterako, bileretan, ikastolak antolatzen dituen festetan (olentzero, inauteriak, danborrada, etab.), gelako irteeretan, gelarako azalpen edo elkarrizketa batean, etab.

Horretaz aparte, inplikazio edo parte hartze hori sustatzeko beti animatzen ditu batez ere seme-alaben jarraipena egiteko, eta aldi berean, umeekin beraien ardurak lantzen ditu. Beti esaten die gurasoei eskola ez dela zerbait itxia, umeak ikastera datozela baina ez dela bakarrik hemen ikasten, edozein lekutan lortu daitezkeela hori; bai

irakasleok bai gurasoak izan behar dira horren atzetik egon behar direnak, bakoitza bere moduan. “Gurasoei etxean jarraipen bat egitea komenigarria dela adierazten zaie lehenengo momentutik, eta hura jarraitu ahal izateko momentu oro berarekin kontaktuan jartzeko aukera eskaintzen zaie bai telefonoz baita emailaren bitartez”. Beraren iritziz, jarraipen bat egin nahi badute informazioa ez zaie falta, eta bere aldetik, ez die oztoporik jartzen. Esaterako, kurtso hasieran egiten den bileran gurasoak ikasturte horretan egingo diren gauzetaz informatzen ditu, datak ematen dizkie, etab. Gainera, irakasle aldaketak direla eta irakasle bakoitzak erabiltzen duen metodologia azaltzen die, nola funtzionatuko duen eta zein izango den ikasturtea aurrera eramateko modua. Horren aurrean eta honetan zehar, irakasleak edozein momentutan galderak egiteko aukera ematen die, baita zalantzak argitzeko aukera ere. Horretarako, emaila eta telefonoa eskaintzen die komunikazioa uneorokoa izateko. Are gehiago, umeak partikularretan badaude ere esaten die berarekin kontaktuan jartzeko partikularretakoak ikasleak landu behar dituen gauzak azaltzeko.

Bilerei dagokienez, nahiz eta bera ez deitu haiek bilera bat egiteko beharra ikusiz gero aukera luzatzen die. “Hor gurasoen inplikazioa ikusten da, bilerak eskatzerakoan”. “Gauza guztietan bezala badaude guraso batzuk seme-alaben hezkuntzan oso inplikaturik daudenak, zenbait kasutan gehiegi esango nuke, eta beste batzuk paso egiten dute”.

Horrez gain, gurasoen aportazioa ikastolan ongi etorria dela azaltzen zaiela dio ere, hainbat arlotan gonbidatzen zaiela ikastolan laguntzeko. Laguntza bide askotatik izan daitekeela adierazten du; esaterako, laguntza emateko, bai jorratzen diren gaiei buruz hitz egiteko, baita irteeretan laguntzeko ere. Ikastolak ez dauka inolako problemarik. “Edozein esparru interesgarria izan daiteke beraiek ikusteko ikastolak baduela lotura kalekoarekin. Bat esan behar badut, eskulanetan zaila egiten zait 24 ikasleekin gauza interesgarri batzuk lantzea. Baina, edozein gaietan laguntza eskertzekoa izango litzateke; izan ere, kanpotik gai batean aditua den norbait ikustea umeentzat erakargarria da eta aldi berean esanguratsua”.

Berak faltan gehien botatzen duena etxetik jarraipen bat egitea da; azken urteotan ikusten ari da hau. “Nire ustez, lehen inplikazio gehiago zegoen, ardura gehiago familietan. Orain jendea ez dago hain inplikaturik, ez dakit lanarengandik izango den edo ideiak aldatu direlako”. Oso deigarria egiten zaio umeen hiztegi falta baina ez euskaraz, gaztelaniaz. “Batuetan iruditzen zait familiak ez direla elkartzten

egunean zehar, afaltzeko momentua kenduta. Ematen du aparatuen munduan bizi direla, ez dutela familiarekin kontaktua ezta elkarrizketarik ere, eta hau nabaritzen da hiztegi faltan, komunikatzeko arazoetan, etab.” Horrek guztiak, zailtasun asko dakartzatela berekin adierazten du eta urtetik urtera zailtasun gehiago eratzten ari direla horren ondorioz (psikologo gehiago, laguntza gehiago). “Familien inplikazioak zuzenki eragiten du umearen inplikazioan eta gozamenen gelan, ume horiek edozein gaiz hitz egin nahiko dute, albisteak ekarriko dituzte eta horretaz hitz egiten saiatuko dira. Ordea, etxean inplikazio hori ez daukaten umeek ez dituzte gai gehienak gustuko izango, bakarrik teknologiek erlazionatuta daudenak”. Jarraipenarekin dio, gutxienez jakitea zer egiten ari diren eskolan, nahiz eta ez jakin zer egin behar duten. “Gutxienez jakitea nola egiten duen lan haien seme-alabek”. Bide berean, adierazten du gurasoen aldetik inplikazio eta parte hartze handiagoa izatea gustatuko litzaiokeela, ondo antolatuta eta aprobetxagarria bada noski. “Gehienbat, gurasoen muga hizkuntza izan ohi da. Baina ikastolatik ez zaio arreta horri ematen eta saiatzen gara beste klaseetan sartzen gurasoen ekarpen hau, adibidez lanbideetaz hitz egitean, etab.” Gurasoek hor aukera badaukatela dio.

Argi dauka batzuentzat zaila dela ordutegiak ez dielako uzten, baina batzuen kasuan gogo falta dela adierazten du. “Guraso askok jarraitzen dute pentsatzen ikastola esparru aparte bat dela; hau da, haiek pentsatzen dute: “hau ez da nire lana, nik hemen uzten ditut umeak eta hau irakasleen ardura da”. Ikusten dut jende ezberdina dagoela, nahiz eta euskara ez jakin inplikatzeko direnak eta edozer gauzetarako bertan daudenak; ordea, beste batzuk nahiz eta ahal izan, ez dute ezer egiten”. Hau oso nabaria dela dio, familiaren eragina egunerokotasunean garbi geratzen baita. “Argi daukat familia askok ez dakitela euskara eta horrelakoetan ezin dutela lagundu, baina mapak edo gaztererazko lanak bidaltzen direnean lagundu dezakete eta suertatzen da hauek ere egin gabe ekartzen dituztela edo gaizki eginda”. Guraso batzuek ardurak falta ikusten du. “Badaude batzuk erdipurdi dabiltzanak baina etxean laguntza dutenez aurrera egiten dute; ordea, hobeago dabiltzan batzuk etxean ez dutenez inolako jarraipenik, haien atzean ibili behar zara hauek aurrera egin dezaten. Orain ondo joango dira gu hor gaudelako, baina hurrengo urtean DBHn horrelako jarraipena ez dute izango eta zeinek daki zer gertatuko den ume horiekin”. Lortu behar dena independenteak izatea dela adierazten du eta ez atzetik ibiltzea, eta horretarako etxeko laguntza beharrezkoa da, biok bat eginez. “Ikaskuntza esanguratsura iristeko etxean ere lan egin behar da eta seme-alaben ikaskuntza prozesuari denbora eskaini”.

- 7.3 Ikertutako ikastolaren dokumentuen analisia (Eranskina III)

Aztertu diren bi dokumentuak Umandi Ikastolako Hezkuntza Proiektua eta Urteko Plana izan dira, eta gurasoen parte hartzea eta inplikazioaren inguruko informazioa analizatu ondoren, zehaztasun gehiegirik ez datorrela ikusi izan da. Hala ere, jarraian aztertu den informazioaren analisia agertuko da.

Hezkuntza Proiektua (IHP) ikastetxearen erabaki eta proiektu handiei gorputza, koherentzia eta orientazioa ematen dien agiria da. Proposamen integrala eta globala da zeinek ikastetxearen ezaugarriak, balioak, printzipioak eta helburuak zehazten ditu, eta horiek nola bete adierazten du. Beraz, dokumentu honek ikasle guztiei kalitateko hezkuntza ekitatiboa emateko konpromisoa islatzen du, gizarte-bizitzarako beharrezko gaitasunak eskura ditzaten eta, horien bidez, eskola-arrakasta lor dezaten (Eusko Jaurlaritza, d.g.). Umandi Ikastolako hezkuntza proiektuari dagokionez, ikastolako helburuetako bat guztiontzako lan-giro atsegina lortzea da; hau da, talde lana sustatzea, eta bertan gurasoen parte hartzea ageri da. Esaterako: ikasleei, familiei eta irakasleei mintzatzeko eta parte hartzeko bideak eskaintzea eta guztiek ikastetxearen antolaketan eta garapenean dagokien gaitasun-esparrutik laguntza sustatzea. Horretaz aparte, ikastolako lehentasunetan ere gurasoen garrantziaren presentzia agertzen da. Esaterako, euskararen erabilera sustatzeko komunitateko kideak (gurasoak, jantokiko zaintzaileak, eskolaz kanpoko ekintzetako begiraleak, irakasle eta hezitzaileak, etab.) parte hartzearen garrantzia azpimarratzen da; gurasoek euskara batzordea antolatuz eta hainbat dinamika sortuz euskaraz egiteko, ikasleek eredu euskaldun bezala ikusteko. Aurretik aipatutako helburuarekin erlazionatuta, beste lehentasun batean, talde lanak eskatzen duen inplikazioa eta parte-hartzearen kultura lortzeko jarduerak bultzatzea dena, familiekin harremanak egitearen garrantzia agertzen da (banakakoak, taldekoak), bide desberdinak jorratuz (oharrak, bilerak, agendak, teknologia berriak erabiliz, etab.).

Horrez gain, ikastolako Elkarbizitza Batzordean gurasoen isla agertzen da kide moduan, ikasleen ordezkariak, jantokiko arduraduna, aholkularia, eskolaz kanpoko ekintzetako arduraduna, L1 (Eskolazaina) eta ikasketa burua bezala.

Bestalde, prestakuntza eta berrikuntza atalean gurasoen garrantzia azpimarratzen da. Bertan, ikastetxean gurasoek edo legezko tutoreek haurren eskolako hezkuntzaren jarraipena egiteko eskubidea dutela adierazten da, eta hartan parte hartzeko. Ikastetxeko Hezkuntza Proiektutik abiatuz, konpromisoak sustatzen

dituzte familien edo legezko tutoreen eta ikastetxearen artean, eta bertan jasotzen dira familiak, irakasleak eta ikasleak zein jardueratarara konprometitzen diren, etapa bakoitzeko helburuak eta oinarrizko konpetentziak lortzeko. Konpromiso horien artean daude: ikastetxeko hezkuntza-printzipioak onartzea, familiaren ideologia eta moralara errespetatzea legeetan ezarritako hezkuntza printzipio eta balioen arabera, ikasleen bilakaeraren jarraipena egitea, bizikidetzako neurri zuzentzaileak hartzea eta ikastetxearen eta familiaren artean harremanak egotea. Halaber, ikastetxeak eta familiak, konpromiso horiek aldatzeko akordioetara iritsi ahal izango dira, ikaslearen hezkuntza- edo bizikidetzaren prozesua hobetzeko edo ikasle bati hautemandako arazoak konpontzeko; ikasleek ere parte hartzen dute akordio horietan. Gainera, familiek parte hartzeko eta elkarlana egoteko, ikastetxeak eta guraso-elkarteak prestakuntza-jarduerak antolatzen dituzte gurasoentzat eta legezko tutoreentzat, betiere inklusioaren eta hezkidetzaren ikuspegitik (Umandi Ikastolako Hezkuntza proiektua, d.g.).

Beste alde batetik, urteko plana baliabide bat da zeinen bidez, ikastetxeak ikasturterako dituen helburuak zehazten dira. Hau da, ikastetxe osoa inplikatzeko duen dokumentua da, eta ikasturte baterako hartutako erabakiak jasotzen ditu. Hauek, epe luzera begira eta modu koherentean zehazten ditu eta baita ere, eskola-elkarteko estamentuen premiei eta eskakizunei erantzun behar die ezinbestez (ikasle, irakasle, familia, etab.) (Ayúcar, et al., 2011). Umandi Ikastolako Urteko Planari dagokionez, hezkuntza-komunitatearen ekarpenak egiten dituzten kideei buruz aritzerakoan, familia ordezkariak ageri dira. Lehen Hezkuntzako marko pedagogikoari dagokionez, gurasoen esku hartzearen inguruan ematen den informazioa ez da agertzen, modu orokor batean agertzen da ikastolako helburu orokorrekin batera, lehen aipatu bezala (Umandi Ikastolako Urteko Plana, 2019).

Ikusi daitekenez, ikasturte honetako bi dokumentuetan agertzen den informazioa nahiko orokorra da, inplikazioa eta parte hartzea egon behar dela aitortzen da baina oso gainazaleko era batean ageri da. Orokorrean, familia-eskola harremana, elkarlana eta lankidetzaren eman behar dela adierazten da, baina ez da modu zuzen batean zehazten ezta barneratzen. Hala ere, egindako azterketa ikasturte batekoa baino ez da izan. Izan liteke ikasturte honetako lehentasun bat familien parte hartzea eta inplikazioa sustatzea ez izatea beste lehentasun batzuk zituztelako esku artean eta ordea, aurreko urtetako lehentasuna bai izan izatea.

- 7. 4 Gurasoei plazaratutako inkesta (Eranskina IV)

Ikerketa lan honen lagina handitzeko asmoz, gurasoei hainbat galdera plazaratu zaizkie eurek daukaten iritzia irakasle eta zuzendariaren iritziarekin alderatzeko. Inkesta honetan, haien parte hartze eta inplikazioaren inguruan, hau zenbatekoa den, honen eraginaren inguruan eta hau oztopatzen duten faktoreei buruz galdetu zaie. Horretarako, 6. C-ko gelako 24 gurasoei pasatu zaie inkesta eta 22k erantzun dute.


Jarraian gurasoei plazaratutako inkesta honetan egindako 6 galderen erantzunak ikusi daitezke gurasoen parte hartze eta inplikazioaren inguruan haien seme-alaben hezkuntza prozesuan. Honetan oinarrituz, galdera bakoitzeko grafiko bat eratu da modu zuzenago batean galdera bakoitzetik lortutako informazioa adierazteko.

GALDERAK	BAI	EZ
GUZTIRA 1	22	0
GUZTIRA 2	13	9
GUZTIRA 3	8	14
GUZTIRA 4	19	3
GUZTIRA 5	19	3

Iturria: Nik landua.

Haien seme-alaben hezkuntza prozesuan parte hartzen duten galdetu zaienean guztiak baietz erantzun dute, eta hau zehazteko zertan parte hartzen duten galdetu zaie. Honetan, gehienek etxeko lanekin laguntzen inplikatzeko direla adierazi dute; hau da, etxeko lanak egiten laguntzen, umeak dituen zalantzak argitzen, eta denboraren antolaketan laguntzen etxeko lan guztiak egiteko denbora izateko. Horretaz aparte, gelan egun horretan egindakoaz interesatzen direla adierazi dute emandako hori berriro etxean indartzeko eta ezagutzak aberasteko, eta bide berean, ez hain ondo doazen ikasgai horietan lagundu egiten dietela adierazi dute. Horretaz aparte, hainbatek adierazi dute klaseko harremanetaz galdetzen dietela eta horren inguruan gehiago jakiten saiatzen direla; hau da, zein motatako harremanak dituzten gainerako kideekin eta zein motatako gatazkak sortzen diren kideekin. Baita ere,


ikastolan laguntzen dutela adierazi dute, honek antolatzen dituen jaialdi eta ekintza desberdinetan. Gainera, gelan emandako hori indartzeko seme-alabei klase partikularrak jartzen dizkiotela adierazi dute. Aipatu duten beste parte hartze eta inplikazio mota bat bileretan parte hartzea izan da; hau da, irakaslearekin kontaktuan jartzea seme-alaben hezkuntza prozesuari buruz jakiteko. Beste erantzun bat seme-alabak psikologikoki animatzea izan da, eta azkenik, gehiago lagundu nahi luketela adierazi dute baina ez dutela behar beste denborarik.



Iturria: Nik landua.

Bigarren galdera honen erantzunak lehenengoan baino askoz orekatuago egon dira. Izan ere, 22 gurasotik 13k adierazi dute ikastolan parte hartze zuzenagoa izatea gustatuko litzaiekeela eta haien buruak eskaintzen dituztela modu desberdinetan parte hartzeko; esaterako, Eskola Kontseiluan parte hartzen dutela, gelan gai baten inguruan saio batzuk aurrera eramateko prest daudela, etab. Uste dute ikaskuntza giroa ulertzen hezkuntza prozesua hobeto ulertuko luketela eta baita, hobeto lagunduko zutela parte hartze handiagoa izanez. Baina beste 9k adierazi dute ez dutela denbora gehiago inplikazio hori handitzeko, edo haien inplikazioa nahikoa dela. Baita ere, adierazten dute irakasleak formakuntza gehiago daukatela hezkuntza prozesuan ikasleak laguntzeko, ikastolako hezkuntza irakasleen ardura dela eta hizkuntzak parte hartze handiagoa izatea oztopatzen duela.


2- Gustatuko litzazueke zuen seme-alaben hezkuntza prozesuan parte hartze zuzena izatea ikastolan?



Iturria: Nik landua.

Haien inplikazioa eta parte hartzea nahikoa den galdetu zaienean 22tik 8k baino ez dute adierazi nahiko dela. Adierazi dute, duten denborarako haien inplikazioa nahikoa dela, eta kasu batzuetan gehiegizkoa; esaterako, etxean euskaraz hitz egitea seme-alabek jariakortasuna lortzen joateko. Beste 14ak ordea, haien parte hartzea ez dela nahikoa adierazi dute. Honen arrazoiak: denbora falta eta euskara ez jakiteagatik.


3-Zuen parte hartzea/inplikazioa nahikoa dela uste duzue?



Iturria: Nik landua.


Haien seme-alaben hezkuntza prozesuan inplikatzeko eragina izan dezakeen galdetu zaienean, 22tik 19k baietz erantzun dute eta haien erantzuna indartzeko arrazoi desberdinak eman dituzte; esaterako, seme-alabek gurasoen inplikazioaren garrantzia ikusten baitute, laguntza haien ematea hezkuntza prozesuan inplikatzeko dakarrelako, seme-alabak motibatzen dituelako, prozesuaren atal bat delako, ohitura bat sortzeko lagungarria delako, haien inplikazioa garrantzitsua dela ikusten dute oraindik autonomoegiak ez direla ikusten baitute eta behar duten bultzada hori

emateko, haien gainean egon behar dutela adierazten dute emaitza onak lortu ahal izateko eta klasean azaltzen ez dizkieten gauzak azaltzeko. Ordea, 22 horietatik 3k adierazi dute haien inplikazioa seme-alaben hezkuntza prozesuan eraginik ez duela eta gauza independenteak direla.




Iturria: Nik landua.

Haien seme-alaben ikastetxeak hauen hezkuntza prozesuan parte hartzeko modu desberdinen berri ematen dielari buruz galdetzean, 22tik 19k baiezkoa eman dute eta haien erantzuna indartzeko arrazoi desberdinak eman dituzte; esaterako, urteko bileran ematen den informazioa oso baliagarria dela, irakaslearekin daukaten komunikazioa egokia dela eta lagungarria, urtean zehar bilera eta tailer desberdinak egiten direla komunikazioa sustatzen dutenak, AMPA oso ondo funtzionatzen duela eta ikastetxea nahiko moldakorra dela informazioa gurasoei helarazteko. Ordea, 22 horietatik 3k adierazi dute ezetz, eta haien erantzuna argudiatu dute esanez ikastetxeak informazio gutxi helarazten duela eta irakasle-ikastetxe-gurasoen arteko komunikazioa txarra dela.



Iturria: Nik landua.

Haien seme-alaben hezkuntza prozesuan modu aktibo batean parte hartzea eragozten dien horri buruz galdetu zaienean, %48ak adierazi du denbora falta dela parte hartze hori eragozten duena, portzentai altuena izanda. Ondoren, %20ak adierazi du hezkuntza dela eragozten duen faktorea, euskara hitz egiten ez jakitea hain zuzen ere. %5ak adierazi du ez dagoela parte hartze eta inplikazio hori eragozten duen faktorerik, eta baita, beste %5 batek adierazi du hezkuntza sistema dela eragozten duena. Beste %2 batek adierazi du eguneroko gehiegizko lan horrek eragozten duela haien parte hartze eta inplikazio hori, eta baita beste %2 batek adierazi du gurasoek zuzen irakasteko trebetasuna izatearen zalantza dela eragozten duen faktorea. Geratzen den %18ak ez dio erantzun galdera honi, ez zekitelako zein den eragozten duen faktorea edo dena delakoa.



Iturria: Nik landua.

8. ONDORIOAK

Behin dokumentu osoan zehar egindako ikerketa eginda, atera daitezken ondorioak agertuko dira atal honetan.

Umandi Ikastolari dagokionez, duela urte batzuk ikastola pribatua zen, irakasleak ziren langileak eta gurasoak patronalak, zeintzuk ikastola aurrera eramaten zuten. Hau 1994an horrela izateari utzi zion publikoa bilakatzean. Hor jada, gurasoak nagusiak izateari utzi zioten eta irakasleak boterea bereganatu zuten. Beraz, Umandi Ikastolak izandako aldaketa nabaria izan da eta zuzendariaren iritziz, oso onuragarria.

Eskola eta familia, elkar behar duten arren, elkarren artean distantzia batera mantendu dira nahiz eta aldaketa sozialek eta kulturelek bi hauen elkartasuna ekarri. Gaur egun, familia eta eskolaren arteko harremana ikasleen hezkuntza prozesuan zuzenean eragiten duen faktore bat bezala ikusten da. Ordea, ikastolen errealitatean barneratuz gero, ikusi daiteke hau ez dela guztiz horrela, edo behintzat harreman hau oztopatzen duten faktore batzuk aurki daitezke marko teorikoan aipatu bezala, ondorengoak direnak: denbora falta, gurasoen interes falta, gurasoek ez dakite zer espero duten irakasleak haiengandik, gurasoen maila baxua, hizkuntza arazoak, etab. (Garreta, 2015).

Aurreko puntuan adierazi den bezala, Umandi Ikastolan jasotako datuei dagokienez, gurasoek ikastolan parte hartzen dutela adierazten dute orokorrean baina haien parte hartze eta inplikazio hori batzuetan oztopatua geratzen da hainbat faktoreengatik; esaterako, denbora faltagatik, lana dela eta, edo hizkuntzagatik batez ere. Ordea, zuzendaria eta irakaslea ez datoz bat gurasoek adierazitako azken faktore horrekin; haien ustez ikastolarekiko komunikazioan hizkuntza ez da inolako traba, eta euskara ez den beste hizkuntza batean egin daiteke. Honen aurrean irakasleak esaten duena da parte hartze eta inplikazio hori aldatu egin dela gaur egun daukagun errealitatea dela eta, teknologia berriek eta bizitza arinak eragindakoa, hain zuzen ere. Adierazten du urtetik urtera geroz eta zailtasun eta arazo gehiago eratzen ari direla, hiztegi faltan eta komunikatzeko arazoetan, adibidez.

Hainbat ikerketetan adierazi da familien inplikazioaren garrantzia haien seme-alaben eskolan eta hezkuntza prozesuan. Adierazten dute gurasoek hezkuntza bizitzan parte hartzen dutenean ikasleentzako, irakasleentzako, gurasoentzako eta eskolarentzako efektu positiboak lortzen direla. Baita ere, esaten da eskolek familiekin lan egiten dutenean ikasleen errendimendu akademikoa hobetzen dela eta aldi berean, eskolek hezkuntza kalitatea hobetzen dutela. Irakasleak, AMPA-ko gurasoak eta ikastolako agenteen arteko harreman jariakorrak eta elkarren arteko etengabeko komunikazioa gakoa da seme-alaben ikaskuntza esanguratsua lortzeko. Hala ere, inplikazio honetan oztopoak ageri dira guraso eta irakasleen arteko komunikazioan, eta honek daukan garrantzia aintzat hartzea ezinbestekoa da (Garreta, 2015).

Umandi Ikastolan jasotako datuei erreparatuz, guraso gutxi batzuk diote irakaslearekin duten komunikazioa ez dela egokia, ezta ikastolarekin dutena ere. Izan ere, aipatzen dute hauekiko jasotzen duten informazioa eskasa dela eta horrek

komunikazioa egokia ez izatea eragiten duela. Hau, 22 gurasotik 3-k esaten dute, gainerako 19ak pozik ematen dute ikastolarekin eta baita tutorearekin ere, datu pozgarria izanez ikastoalrentzat.

Hezkuntza oso luzea den prozesu bat da gurasoengandik ematen hasten dena, eta gero eskola gehitzen da prozesu honen ematean, beraz biak ezinbestekoak dira ikasleen hezkuntza garapen eta garapen pertsonal betea lortzeko. Hori dela eta, eskolak seme-alaben hezkuntza prozesuan gurasoen parte hartze eta inplikazioaren garrantzia onartu behar du eta baita, harreman zuzenaren beharraz kontziente izan irakasleek haien lana eraginkortasunez egin ahal izateko (Domínguez, 2010).

Hau aditu askok esaten duten arren, errealitatean ez da guztiz aurrera eramaten, irakasle eta guraso batzuk egonik oraindik pentsamendu tradizionalarekin. Izan ere, jasotako datuen arabera, gaur egun oraindik irakasleak aurki daitezke, nagusiak batez ere, eskola edo hezkuntza esparrua soilik haiena dela pentsatzen dutenak eta pentsamendu hau mantentzen dutenak, baita gurasoen laguntza horretan ez dutela nahi edo behar adierazten dutenak. Bestalde, zuzendariak hauen elkarlana garrantzitsua dela aipatu arren, aurtengo ikastolako dokumentu garrantzitsuenetan behintzat, hauen agerpena nahiko azalekoa da eta ez da ageri gauza handirik hauen parte hartzea sustatzeko edo parte hartze hori handitu dezakeen eragilerik. Hala ere, horrek ez du esan nahi beste urte batzuetan haien lehentasuna gai honetan aurrera egitea ez denik izan. Horrez gain, irakasleen pentsamenduekin gertatzen den bezala, badaude oraindik ere guraso batzuk zeintzuk pentsatzen dute ikastola esparrua irakasleena dela soilik eta haien seme-alaben hezkuntza prozesua ez dela haien ardura, irakasleena baizik. Alabaina, aipatu beharra dago gutxi direla pentsamendu tradizional hau mantentzen dutenak, gehiengoak bi eragile garrantzitsu hauen bateraketa beharrezkoa dela ikusten baitute. Portzentai oso baxua da pentsamendu mota hau mantentzen dutenak oraindik eta hori dela eta, Umandi Ikastola adituek esaten duten elkarlan horretara heltzeko bidean dagoela esan daiteke.

Ikastolak gaitasuna izan behar du gurasoak erakartzeko proiektu erakargarrien bitartez zeinetan haien seme-alaben hezkuntza prozesuaren partaide sentitzen diren nahiz eta ezagutza profesionalik ez izan. Izan ere, hezkuntza ez da hasten eta amaitzen txirrina jotzen duenean, ikasleak eskolatik kanpo haien hezkuntza prozesu hori jarraitzen dute eta hori dela eta, ikastolak familien integrazioa lortu behar du eta

seme-alaben hezkuntza prozesuaren partaide bihurtu; modu honetan hezkuntza prozesua luzeagoa eta eraginkorragoa izango da (Domínguez, 2010).

Ikastolak eta familiek larritasunak, hezkuntza, ikastola eta seme-alabei buruzko informazioa eta pentsamenduak trukatu behar dituzte eta umeen garapenari buruzko erabakiak hartu. Familiek hartutako erabaki horiek egunerokotasunera eraman behar dituzte baita hezkuntza ezagutzak ere. Eskolak ordea, ikasle bakoitzean erabakitako helburuak lortu behar ditu eta familia eta egunerokotasuneko ezagutzak bizitza eskolara eraman behar ditu bi testuinguruen elkartasuna lortuz; hezkuntza formala eta informala eraginkortasuna lortzeko (Domínguez, 2010).

Elkarrizketatutako irakasleak dioen moduan, hezkuntza prozesua bizitzan zehar garatzen den prozesu bat da, eteten ez dena eta hau areagotzeagatik egin behar dena. Oso garrantzitsua da ikastolan ikasten dena egunerokotasunarekin erlazionatzea; izan ere, horrek ikasleek ezagutzak errazago barneratzea eragingo du. Bestalde, gurasoek kontrako bidea egin behar dute; hau da, egunerokotasun hori hezkuntza arloekin lotzen saiatu behar dira eta hau lortzen lagundu behar dituzte seme-alabak. Hau lortuz gero ikaskuntza esanguratsura iristea errezagoa izango da. Lortutako emaitzekin ikus daiteke guraso gehienak prest daudela eta gustatuko litzaiekeela haien seme-alaben hezkuntza prozesuan modu zuzenago batean jardutea, 22tik 19k hain zuzen ere hori erantzun dute. Beraz azken bultzada bat faltako litzateke hor elkartasun horretara heltzeko, garrantzitsuena eta zailena bion partetik ipintzea baita eta hori horrela dela ikus daitekeelako.

Bi eragile garrantzitsu hauen elkartasuna lortzeko ikastolaren partetik hau sustatzeko mugimenduak egotea ezinbestekoa da; hau da, gurasoen parte hartzea, kooperazioa, etab. lortzeko. Baita ere, familiaren aldetik, ahalegina egin behar dute haien seme-alaben hezkuntza prozesuan sartzeko; izan ere, modu horretan haien eraginaz kontziente izango dira seme-alaben hezkuntza prozesuan, balioen transmisioaz eta giza harremanetaz (Domínguez, 2010).

Umandi Ikastolako ikerketa lanean honi buruzko informazioa jaso da. Bertan, elkarrizketatuak izan diren zuzendari zein irakaslea adierazi dute haientzat hezkuntza prozesua familien eta irakasleen zerbait dela eta biek bat egin behar dutela helburu gehiago lortzeko eta bide batez, umeen garapena egokiagoa izateko. Esaten dute seme-alaben familiak inplikatzan badira umearen lorpenak askoz hobeagoak direla;

izan ere, umeek inplikatuak ikusten badituzte gurasoak haien hezkuntza prozesuan, hauek beste gogo batekin hartzen dute haien lana baloratua dela ikusten dutelako bere gurasoengandik. Hori dela eta, etxean denbora eskaintzea eta jarraipen bat egotea beharrezkoa dela ikusten dute, alde batetik motibazioa helarazteko eta beste batetik, lorpenak hobetoagoak izateko.

Gurasoen eta irakasle edo eskolako eragileen rola desberdinak dira; gurasoek denbora eskaini behar diete seme-alabei etxeko lanak eginez, arauak erakutsiz eta hauek errespetatzen dituztela ziurtatuz, besteenganako errespetua erakutsiz, hauen motibazioa sustatuz hezkuntza prozesuarekiko, bileretara joanda, irakaslearekin kontaktuan ipiniz, sortzen diren arazoetan arduratuz, etab. Irakasle edo ikastolako eragileen rola dagokienez, hauek ikasle taldearentzako metodologia pedagogikorik onena aukeratzen eta aplikatzea, ikasleentzat arduratzea, irakaskuntza metodo egokiena hautatzea, arrakasta ezari aurre egitea, gurasoek euren ardurak betetzen dituztela egiaztatzea, etab. dira (Domínguez, 2010). Elkarren arteko ardurak desberdinak izan arren, helburu bera dute seme-alabei ahalik eta baliabide eta estrategia egokiena ematea dena hezkuntza prozesua ahalik eta osatuena, eraginkorra, esanguratsua eta kalitatezkoa izateko.

Jasotako datuetan ikusi daitekeenez, hainbatetan gurasoek adierazi dute haien parte hartzea oztopatua ikusten dela denbora dela eta, adibidez. Horren aurrean, irakasleak kontutan izan behar du familia askok ezin dietela haien seme-alabei behar duten denbora eskaini nahiz eta hauek ahal duten guztia egin. Horretaz aparte, inkestetatik ateratako informazioan ageri den bezala, zenbaitetan gurasoak ez dira kapazak ikusten euren seme-alaben hezkuntzan sartzeko formakuntza falta dela eta. Kasu hauen aurrean, irakasleak beste modu bat aurkitu beharko luke ikasle hauen hezkuntza prozesua eragindua ez geratzeko baliabide desberdinak eskainiz; esaterako, gurasoen autokonfiantza bultzatzea zeregin argiak adosten eta zalantzak konpartitzen eta argitzen. Bere aldetik, Aubert, Flecha, García, Flecha eta Racionero-k (2008) adierazten dute ikaskuntza dialogikoa oso aproposa izan daitekeela familien eta irakasleen arteko harremanetarako elkarrengandik ikasteko aukera ematen baitu. Azkenean, bi eragile hauek helburu berdina dute, umeen garapena erraztea eta bizitzarako prestatzea dena. Hori dela eta, beharrezkoa egiten da bi eragile hauek elkar lan egitea hurren beharrei modu egokienean erantzuteko (De León, 2011).

Elkartasun hori errealitate bihurtzeko beharrezkoa da bi eragileen arteko komunikazioa areagotzea. Modu honetan adostasun batera iritsiko dira hezkuntza ardurei dagokienez. Baina komunikazio eta kooperazio giro honetara heltzeko funtsezkoa da elkartasun espazio, momentu eta bideak sortzea. Garrantzitsua da irakasleak eta gurasoak kontziente izatea kooperazio lan horrek umeen garapen pertsonalean eragin positiboak dituela; izan ere, honek harremanak hobetzea eragiten du eta eskola-porrota ematea ekiditen du (De León, 2011).

Jasotako datuak aztertu ondoren, ikusi daiteke bi eragile hauen rola desberdinak izan arren elkarren artean behar direla. Argi daukate elkarren elkarlana umeen hezkuntza prozesuan eragin oso positiboak dituela eta arteko harremana ahalik eta sendoena eta gertukoena izatea oso egokia dela, modu honetan ikasleek garapen integrala eta ikaskuntza esanguratsua lortu ahal izango dutelako.

Emaitzak modu orokor batean laburbilduz, argi ikus daiteke ikastolako eragile zein guraso gehienek euren partetik jartzen dutela bilatzen den elkartasun hori lortu ahal izateko eta orokorrean pozik daudela daukatenarekin. Azken batean, haien ume zein ikasleentzako hoberena bilatzen saiatzen dira, baita ikaskuntza esanguratsu hori lortzeko ere. Hala ere, beti zerbait gehiago egin daiteke eta gai honetan aurrera egitea egokia izango litzateke, pentsamendu tradizionalago hori duten horiei pentsamendu aldaketa eragiteko eta gurasoak gehiago eta modu zuzenago batean inplikarazteko. Hurrengo puntuan, kalitatezko hezkuntza prozesu hau sustatzeko hobekuntzak plazaratu egingo dira Umandi Ikastolara zuzenduak.

9. MUGAK ETA HOBEKUNTZAK

Lan osoan zehar aipatu izan da familien inplikazioa eta parte hartzea haien seme-alaben hezkuntza prozesuan ezinbestekoa dela kalitatezkoa eta esanguratsua izateko, eta Umandi Ikastola ikertu ondoren ikusi daiteke hainbat faktore oztopatzen dutela hau. Hori dela eta, lanaren atal honetan gurasoen parte hartzea oztopatzen duten faktoreak plazaratu eta parte hartze eta inplikazioa handitzeko zenbait estrategia pedagogiko planteatuko dira gai honetan aurrera jarraitzeko eta elkartasuna handitzeko.

Aurreko puntuetan aipatu bezala, gurasoen inplikazioa eta parte hartzea zenbaitetan oztopatua edo mugatua geratzen da faktore desberdinak direla eta,

ondorengoak direnak: hizkuntza mugak, muga sozioekonomikoak (denbora falta lanean ordu gehiegi ematen dituztelako, interes gutxi gurasoen partetik, formakuntza gutxi dutela uste dutelako), muga kulturalak eta muga instituzionalak (hori haien lana ez dela uste dutelako, etab.) (Garreta, 2008). Muga hauek faktore eragile garrantzitsuak izan arren, gainditu behar dira eta oztopoak izateari utzi behar diete.

Ikastolek kontuan izan behar dute informatzea eta jakinaraztea ez direla gauza bera. Hau da, askotan gertatu ohi da ikastolek informazio anitz plazaratzen dietela familiei eta horrekin nahikoa dela pentsatzen dutela. Baina errealitatean ez da hori gertatzen familiek haien papera egiteko baliabide nahikorik ez dutela nabaritzen dutelako. Hori dela eta, bi kontzeptu hauek kontuan izan beharrekoak dira, ikastolak jakinarazi behar baitu eta ez bakarrik informatu ostean familiek informazio hori erabili ahal izateko (Garreta, 2008).

Horretaz aparte, irakasleak lan handia dauka egiteko. Familien egoerak ezagutu eta ulertu behar ditu, familia bakoitza desberdina da eta bakoitzarekin modu batean jokatu behar da, ikasleekin gertatzen den bezala; familia bakoitzaren egoerara moldatuz (ordutegia dela eta, konfiantza gehiago ematea, etab.) Horrez gain, parte hartze eta inplikazioa sustatzeko estrategia eta baliabide desberdinak eskaini behar ditu. Esaterako:

- Kurtso hasieran egindako bileran irakasleak plazaratu dezake ikasturtean zehar gurasoak, ikasleak eta irakasleak familia bat eratuko dutela guztien ongizatea lortzeko.
- Ekintzak gelan. Gelan egiten diren hainbat ekintza seme-alaben bizitza ezagutzeko bideratuak izan daitezke. "Bizitza historia sortzen" gai oso aproposa izan daiteke irakasleak ikasleei buruz gehiago jakiteko (familia kideak, gurasoen lanbideak, etab.) eta modu berean, gurasoek lan honetan lagundu egin dezakete haiei buruzko gaia baita.
- Ginkanak edo olinpiadak. Kirol eta kultura jarduerak antolatzea oso egokia izan daiteke, non ikasleak parte hartu beharrean soilik gurasoak gonbidatuta dauden ere elkarlana eta kooperazioa sustatzeko.
- Familiako eguna. Egokia izango litzateke egun bat antolatzea ikasleen familiekin elkartzeko eta partekatzeko. Giro informaleko une bat da zeinetan harremanak elkartu eta sendotu daitezke.
- Eguneroko harremana. Ikastolatik ateratzeko momentu hori aprobetxatu daiteke gurasoekin hitz egiteko zerbait gertatuz gero edo ikaslearen garapen prozesuan

eragin dezakeen zerbait egonez gero. Gaur egun, telekologia berriein gurasoekin izateko komunikazioa asko erraztu da, eta irakasleak honetaz aprobetxatu beharko lirateke.

- Bilerak. Ikasturtean zehar bilerak oso garrantzitsuak dira. Izan ere, bertan guraso eta irakasleak umearen garapen prozesuaren inguruan hitz egiten dute eta aurrera egin dezan hartu beharreko erabakiak erabakitzeko momentu egokiena da. Hauek ez ditu zertan irakasleak beti antolatu behar, gurasoek eskatu ditzakete ere beharra ikusiz gero (Cepeda, 2017).
- Gurasoei bideratutako formakuntzak. Ikertutako ikastolan, guraso batzuk adierazi duten moduan ez dira gai ikusten euren seme-alaben hezkuntza prozesuan sartzeko, beraz, formakuntzak oso egokiak izango lirateke euren konfiantza handitzeko eta bide batez, laguntza handiago eskaini ahal izateko.

Aipatutako estrategia hauek oso egokiak izan daitezke gurasoen parte hartzea sustatzeko zeintzuk ikasleen hezkuntza prozesuan eragin oso positiboak izango lituzkete. Baina horietaz aparte, aipatzekoa da talde elkarreraqileen estrategia edo baliabidea ere. Hauetan, irakasleak gurasoen parte hartzea eskatuko luke asteko arratsalde batean, edo gehiagotan guraso kopuruaren arabera, guraso talde bat ikastolara gerturatzeko eta txokoen bidez lan arlo bat jorratzeko. Helburua ikasleen artean planteatutako ariketa ebaztea izango litzateke. Kasu horretan, gurasoen lana hauei sortzen zaizkien zalantzak argitzea izango litzateke, egonez gero. Modu honetan, gurasoak zuzenean haien seme-alaben hezkuntza prozesuan barneratzen dira eta aldi berean ikasleen beharrak asetzen dituzte irakaslearen laguntzarekin. Beste estrategia edo baliabidea, tertulia dialogikoak dira oso egokiak izan daitezkeenak. Izan ere hauen bidez, gurasoek haien seme-alabei laguntzeko aukera izango lukete eskolan, eta beste alde batetik, umeek haien ezagutza handituko lukete gainerako kideen ekarpena dela eta. Hauen helburua elkarrizketa eta kideen ekarpenen bitartez truke aberasgarria sortzea da ikasle bakoitzaren ezagutzak handitzeko (Álvarez, González, Larrinaga, 2012). Estrategia hauek bide zuzenak izan daitezke gurasoek haien laguntzaren balioa ikusteko eta haien seme-alaben hezkuntza prozesuan hauen motibazioa sustatzeko.

Beste aukera bat gurasoak ikastolako proiektuetan murgiltzea da, esaterako patioko eraldaketan. Ikasturte honetan ikasi bezala, oso ohikoa da ikastolek patioa leku inklusiboagoa bilakatu nahi izatea hezkuntza gunea bihurtuz. Izan ere, askotan patioek haien zentzua galdu egiten dute hezkuntzatik at geratzen diren balioak erreproduzitu egiten dira; esaterako, genero rolak, etab. Hori dela eta, patioko eraldaketa familien

parte hartzea handiagotu dezakeen proiektu oso egokia dela iruditzen zait. Patioko eraldaketan eskola aginteek, ikasleek eta familiek parte hartzeko aukera izan dezakete, eta momentu oso egokia da familiek euren laguntza beharrezkoa dela ikusteko euren seme-alaben hezkuntza prozesuan modu positibo batean jardun eginez.

Umandi Ikastolan ikusi izan da oraindik ere badaudela eskola esparrua irakasleen gauza dela pentsatzen dutenak, irakasle zein guraso gutxi batzuk. Hori dela eta, pentsamendu horrekin apurtzeko eta bi eragile hauek elkar lan egin behar dutela ikusteko gurasoen eta ikastolaren arteko komunikazio kooperatiboaren programa deituriko estrategia oso egokia iruditzen zait. Programa hau 8 asteko iraupena eukiko luke, irakasleentzako 3 asteko aurreformakuntza bat eta saio bat ikastolako zuzendaritzarekin “brainstorming”-a egiteko. Programa honekin bilatzen dena gurasoak ikastolan eroso sentitzea eta irakasleei gurasoak eskolan eta haien seme-alaben hezkuntzan inplikatzeko irakastea da, baita gatazkak ahalik eta modurik hoberenan ebazten laguntzea ere. Honekin, irakasleek eta gurasoek haien eraginaren eta balioaren kontzientzia hartzen dute seme-alaben hezkuntzan. Gurasoek aurrera eramaten dituzten saioetan lantzen diren gaiak ondorengoak dira: aurkezpena eta ideia trukaketa, irakaslearen paperean jartzea, familia aniztasuna, argitasunez adierazi, irakasleekin lan egin, aniztasun kulturala, egoera zailak aurre egin, etab. Iraskaleek ordea, hurrengo gaiak eramango dituzte aurrera: aurkezpena eta praktiken trukaketa, familia, aniztasun balioak, argitasunez eta errespetuz adieraztea, elkarrizketak aprobetxatzea, boluntariora lanak sustatu, zailtasunak aurre egin eta inplikazioaren filosofia. Programa bukatzen da batera egindako saio batekin non ikastolako araudia aztertzen den eta aldaketak erabakitzen diren. Ikastola asko izan dira programa hau aurrera eraman dutenak eta onura asko dituela ikertu izan da; esaterako, guraso eta ikastolaren arteko komunikazioa eta kooperazioa indartzea, erabakiak adostasunean hartzea, etab. (Domínguez, 2010).

Estrategia edo baliabideetaz aparte, garrantzitsua da ikastolako dokumentu nagusietan gurasoen presentzia handitzea eta haien garrantzia azpimarratzea dokumentu ofizial horietan. Ikusi izan da badaudela oraindik ere familiak zeintzuk ez diren kapazak ikusten hezkuntzan sartzeko. Hori dela eta, ikastolak parte hartzeko kultura sustatu behar du, parte hartze eta inplikazio hau handitzeko estrategiak bilatu behar ditu eta gurasoei hauek transmititu eta aurrera eramaten lagundu. Gurasoek laguntzeko daukaten beldur hori alde batera utzi behar dute. Umandi Ikastolan esaterako, egokia izango litzateke gurasoei argi uztea hizkuntza haienentzat ez dela

oztopo bat, guraso askok uzte duten bezala. Ikastolako kideentzat hizkuntza ez da muga bat, moldatu daitezke laguntza hori haien hizkuntzan jasotzeko eta hori egiteko prest daude ikusi izan dugunez, falta dena beldur horrekin amaitzea da zein parte hartzeko aukerak handituz joango litzateke.

Erabakiak bi eragileen artean hartzen diren estrategia edo prozesu orotan gatazkak edo iritzi kontrajarriak sor daitezke Kñallinsky-k (2004) dioen moduan, modu batean edo bestean, baina hauek ez dira oztopo bat izan behar. Are gehiago, kontrako iritziak sor ditzaketen arazoak ekiditu behar dira umeen garapen prozesua kaltetua ez izateko. Horrelako egoerei mamia atera behar zaie, gatazkak sortu ohi dira iritzi derberdinak planteatzen direnean eta hauek modu positiboan ebazten badira sormena eta bizitasuna ematen diote hezkuntza prozesuari. Iritzi bakoitza argudiatu eta bion artean adostasun batera iritsi behar dira egokiena aukeratuz umeen hezkuntza prozesurako; izan ere, bion artean hezi behar dituzte umeak ahalik eta era egoki eta esanguratsuenean.

Abantaila asko dira parte hartze eta inplikazio horrek eta irakasle-gurasoen arteko harreman estua eta konfiantzako izatea eragiten dituztenak; esaterako, beharrak asetzea, motibazioa handitzea, ikasle, guraso eta irakasleen asebetetzea, helburu eta eboluzioaren arrakasta, ardura banatzen da, etab. (Razeto, 2016). Hori dela eta, ahaleginak egin behar dira onura hauek errealitate bihurtzeko.

Laburbilduz, argi dago ikastolak gurasoen beharra duela ikasleen hezkuntza arrakasta lortzeko. Hori dela eta, gurasoen parte hartzea eta inplikazioa funtsezko papera hartzen du umeen gaitasunak bultzatu eta indartzeko hezkuntza arrakasta eta garapen integrala lortzeko (Razeto, 2016). Lana ez da batere erreza, hori dela eta ez da eragile baten eskuan utzi behar soilik, elkar lan egin behar dute eta umeen hezkuntza ahalik eta hoberena izaten ahalegindu behar dira. Baina hau posible egiteko beharrezkoa da bi eragileek honen garrantziaz kontziente izatea aurrera egin ahal izateko, eta kasu honetan Umandi Ikastola osatzen duen komunitatearen gehiengoak argi dauka, aurrera egiteko ateak irekita egonez.

10. BIBLIOGRAFIA

- Aguado, L. (2010). Escuela inclusiva y diversidad de modelos familiares. *Revista Iberoamericana De Educación*, 53(6), 1-11 orr.
- Alcalá, J., Martín, L. & Ruiz, G. (2015). La participación de las familias en el Sistema Educativo de sus hijos. *Educaweb*. <https://www.educaweb.com/noticia/2015/02/09/participacion-familias-sistema-educativo-sus-hijos-8679/>- tik berreskuratua.
- Álvarez, C., González, L. eta Larrinaga, A. (2012). Aprendizaje dialógico, grupos interactivos y tertulias literarias: una apuesta de centro educativo que favorece la inclusión. In F. Guerra, R. García, N. González, P. Rens eta A. Castro (koord.). *Estilos de aprendizaje. Investigaciones y experiencias. V Congreso Mundial de Estilos de Aprendizaje*. Santander, ekainaren 27, 28 eta 29. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=4644436>- tik berreskuratua.
- Armas, N. (2012). Percepción del profesorado sobre la participación de las familias en la escuela, especialmente de aquellas en situación de riesgo psicosocial. *IPSE-ds*, 5, 9-23 orr.
- Aubert, A., Flecha, A., García, C., Flecha, R. & Racionero, S. (2008). *Aprendizaje dialógico en la Sociedad de la Información*. Barcelona: Hipatia.
- Ayúcar, J. A., Cereceda, I., Fernández, A., Hernández, M., Iriarte, L., López, J., Pérez, E., Portillo, K., Redondo, I. eta Uriarte, L. (2011). Ikastetxearen Urteko Plana eta Urteko Memoria egiteko gida. http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_liderazg/adjuntos/200008e_Pub_EJ_pac_memoria_e.pdf- tik berreskuratua.
- Bolívar, A. (2006). Familia y escuela: dos mundos llamados a trabajar en común. *Revista de Educación*, 339, 119-146 orr.
- Calvo, M^a I., Verdugo, M. Á., & Amor, A. M. (2016). La Participación Familiar es un Requisito Imprescindible para una Escuela Inclusiva. *Revista latinoamericana de educación inclusiva*, 10(1), 99-113 orr.
- Carrascosa, V. L. & Fernández-Díaz, M. J. (2017). Diseño y validación de un instrumento para evaluar la participación de las familias en los centros educativos. *Reop*, 28(3), 115-132 orr.
- Cepeda, L. D. (2017). *Una familia con visión participativa en la educación ayuda al niño en el proceso de aprendizaje, mejora su rendimiento escolar y*

- hace que se sienta apoyado.* <http://www.aikaeducacion.com/consejos/siete-consejos-fomentar-la-participacion-las-familias-la-escuela/>- tik berreskuratua.
- De León, B. (2011). La relación familia-escuela y su repercusión en la autonomía y responsabilidad de los niños/as. https://extension.uned.es/archivos_publicos/webex_actividades/4440/larelacionfamiliaescuelaysurepercusionenlaautonomiay.pdf- tik berreskuratua.
 - Domínguez, S. (2010). La Educación, cosa de dos: La escuela y la familia. *Revista digital para profesionales de la enseñanza*, 8.
 - Egido, I. (2014). Marcos normativos de la participación de las familias en los sistemas educativos europeos. Una visión comparada. In Ministerio de Educación, Cultura y Deporte. *La participación de las familias en la educación escolar*, 35-56 orr.
http://www.eunec.eu/sites/www.eunec.eu/files/members/attachments/estudioparticipacion-cee_digital_r.pdf- tik berreskuratua.
 - Eusko Jaurlaritza. (d.g.). Ikastetxearen hezkuntza proiektua egiteko gida. https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_lider_dir_escolares/eu_def/adjuntos/200013e_Pub_EJ_guia_pec_e.pdf- tik berreskuratua.
 - Garreta, J. (2015). La comunicación familia-escuela en Educación Infantil y Primaria. *Revista de la Asociación de Sociología de la Educación*, 8,(1), 71-85 orr.
 - Garreta, J. (2008). *La participación de las familias en la escuela pública*. Las asociaciones de madres y padres del alumnado. Madrid: CEAPA.
 - González, P., Repáraz, C. & Sanz, A. (2016). *Familien parte-hartzea Nafarroako hezkuntza sisteman*. https://consejoescolar.educacion.navarra.es/web1/wp-content/uploads/2016/06/CEN_Monografia_PartyFam_eusk_web.pdf- tik berreskuratua.
 - Kñallinsky, E. (2003). Familia-escuela: una relación conflictiva. *El Guiniguada. Revista De Investigaciones Y Experiencias En Ciencias De La Educación*, 12, 71-94 orr.
 - Ley General de Educación. (1970). Disposiciones generales. *BOE*, 187, 12525-12546 orr.
 - Navaridas, F. & Raya, E. (2012). Indicadores de participación de los padres en el sistema educativo: un nuevo enfoque para la calidad educativa. *Revista Española de Educación Comparada*, 20, 223-248 orr.

- Orientación Andújar. (2017). Cuestionario para las familias. <https://www.orientacionandujar.es/wp-content/uploads/2017/08/cuestionario-familias-inicio-de-curso.pdf>- tik berreskuratua.
- Razeto Pavez, Alicia. (2016). Estrategias para promover la participación de los padres en la educación de sus hijos: el potencial de la visita domiciliaria. *Estudios pedagógicos (Valdivia)*, 42(2), 449-462 orr.
- Survey monkey. (d.g.). Encuesta de padres para escuelas. <https://es.surveymonkey.com/mp/harvard-education-surveys/> tik berreskuratua.
- Umandi Ikastola. (d.g., argitaratu gabea). Hezkuntza proiektua.
- Umandi Ikastola. (2019, argitaratu gabea). Urteko plana.

11. ERANSKINAK

Umandi Ikastolako zuzendariari egindako elkarrizketa (Eranskinak I)

1. **Familien parte hartzea garrantzitsua dela uste duzu?**

Bai, guretzat familiak partaide sentitu behar dira ikastolan, zergatik? Beno ba haiek partaide sentitzen diren momentuan beraien erantzunkizuna ere ikusten dute. Ez da, ekarri umea utzi eta etxera joan. Beraiek parte hartzen badute jaietan, gai zehatz bat lantzen denean, lanbideak adibidez, haien eginkizuna garrantzitsua da eta gainera zerbait eskaini dezaketela ikusten dute. Nahi duguna da ikastolarekin erlazio bat izatea. Haiek parte sentitzen diren momentutik, haien seme-alabek ere gauza bera sentituko dute, baita motibazio puntu bat igoko dute haien gurasoak inplikaturik ikustean.

2. **Gurasoekin daukazu harremana nolako dela esango zenuke? Eta zuzendaritza taldeak orokorrean?**

Zuzendaritzatik gurasoei bidali nahi zaien mezua edozein gauzatarako hurbildu daitezkeela da. Harreman ona somatzen dut gurasoekin eta hauek horrela izateko prest daude; galderak izatekotan gerturatzeko esaten zaie, haiengana hurbiltzeko, etab. Harreman gehieneko momentua matrikulazio momentuan da, egiten ditugun bileretan kurtsoa hasi baino lehen. Horretaz aparte, AMPA-koekin beti gaude lotura estuan.

3. **Familiek ikastolan parte hartu ohi dute? Nola?**

Familiek normalean parte hartzen dute ikastolan. Hasteko, Eskola Kontseiluan, non 15 familia 10 irakasle eta zuzendaritzako 3 pertsona gaude. Baina beno, han familia gehiago daude. Hau ikastolako organo gorena dela esan dezakegu eta haiek dira urteko plangintza, egutegia, urte amaierako memoria onartzen dutenak. Gai horietan hartzen du parte batez ere Eskola Kontseiluak.

Gero badago AMPA, non guraso guztiek hartzen dute parte; hau da, guraso guztiak dira AMPA-ko kideak eta berak ere badu batzorde bat non arlo desberdinak lantzen dituzte.

Azkenik badaukagu Guraso Eskola non guraso talde bat elkartzen diren, erabakitzen dute zein gai diren interesgarriak eta haiek antolatzen dituzte

horrelako hitzaldiak edo bilerak edo tailer batzuk. Ez dira familia asko etortzen, gehien bat, etortzen direnak gutxien behar dutenak dira. Beharko luketenak ez dira etortzen, gai horren inguruan lan egin beharko luketenak. Orokorrean familiek parte hartzen dute ikastolako estamentu desberdinetan. Bertan hitzaldiak eta tailerrak antolatzen dituzte gurasoek parte gehiago hartu ahal izateko umeak ikastolan dauden bitartean, arratsaldeko 15:00etatik 16:30etara. Gai desberdinak lantzen dituzte eta haiek edo kanpoko aditu bat ekartzen dute aurrera eramateko; esaterako, umeen haserrealdiak nola kudeatu, mugikorrek nola kudeatu, etab., haien intereseko gaiak.

4. Hezkuntza prozesuan esku hartzen dute gurasoek? Horrela izatekotan, nola?

Gainerako esparruetan bezala, badaude haien seme-alaben hezkuntza prozesuetan esku hartzen duten familiak eta inplikatzeko ez direnak, eta hau oso argi ikusten da. Nire ustez, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua familien eta irakasleen zerbait da eta biok bat egin behar dute helburu gehiago lortzeko eta bide batez, umeen garapena egokia izateko. Argi dago batzuk ez dutela esku hartze hori behar, baino beste askok bai eta ume horien familiak inplikatzeko badira umearen lorpenak askoz hobetoagoak izango dira. Ordea, inplikaziorik ez badago ume hori etxera joaten da, etxeko lanak ez ditu egiten gurasoek ez diotelako ezer esaten. Aldiz, familia berarekin jartzen bada laguntzen, gauzak azaltzen, umeari irakaslearekin hitz egiten egon dela hari buruz zer hobetu dezakeen jakiteko, etab. umeak ikaskuntza-irakaskuntza prozesua beste gogo batekin hartzen du, bere lana baloratua dela ikusten duelako bere gurasoengandik. Denbora eskaintzen dietela ikusteak motibazioa eragiten die umei. Etxean jarraipen bat egotea beharrezkoa da, alde batetik motibazioa helarazteko eta beste batetik, lorpenak hobetoagoak izateko.

5. Zenbatekoa dela esango zenuke inplikazioa? Eta Lehen Hezkuntzan?

AMPA-ri buruz hitz egitean esan behar dut ehuneko nahiko handia dela, 70% ingurukoa esango nuke, beste familiak AMPA-n daudenak baina batzorde horretan parte hartzen ez dutenak, haien parte hartzea ez da hain handia, eskasagoa da edo puntualki eskatzen diegunean. Hemen lantzen diren gaiak eskolaz kanpoko ekintzei buruzkoak dira; gainera, jai batzordea dago ere eta honetaz ere hitz egiten da, ikastolako jaien inguruan hain zuzen ere. Horretaz aparte, zein gai izango diren interesgarriak ere aztertzen dituzte hitzaldiak emateko.

Lehen Hezkuntzan, momentu puntualak izan ezik, gero eta parte hartze gutxiago nabaritzen dut. Bakarrik ikusten da interesa eskolako jaietan, inauterietan, Olentzeron edo halako festa handietan. Liburu eguna denean ere, gurasoak antolatzen dituzte ekintzak eta badoaz gelaz gela ipuin desberdinak kontatzen. Baita inguruneko gaiaren arabera, adibidez animaliak baldin badira, gela horretako gurasoek etxean duten animalia ekartzen dute eta horri buruz hitz egiten dute. Hori Lehen Hezkuntza osoan. Horretaz aparte gutxi dago.

6. Zer egiten duzue ikastolan gurasoen parte hartzea sustatzeko?

Adibidez gai konkretu bat lantzen denean, gelara etortzeko ez dago hainbeste arazorik, ia guztiak etortzen dira. Ikastolatik ez dugu jartzen trabarik gurasoen parte hartzea sustatzeko nahian. Hizkuntzaren aldetik euskara ez jakitekotan beste saioetan sartu daitezke gaztelania umeek landu egiten baitute, adibidez lanei buruzko hitzaldietan. Talde guztietan badaude familia batzuk ezinezkoa dela haiengana hurbiltzea, nahiz eta gu haien lankidetzara sustatu nahi izan; haien ez badute nahi gutxi egin daiteke.

Behin adibidez, ingelesa hitz egiten duen ama bat joan zen ingeleseko saiora bertan hitz egiteko eta azalpen batzuk emateko, ingeleseko irakasleak bideratu dezakeelako saioa. Gainera, norbait hitzaldi bat ematera datorrenean aurreprestatzen da saio hori galdera desberdinak prestatzen, adibidez.

Sustapena gehien bat da ohar baten bidez bidaltzen da klaseko arloa bada, gauza orokorra denean email-aren bidez bidaltzen da eta azken urteotan Whatsapp-aren bidez komunikatzen gara modu zuzenagoa delako eta horrela mezua ailegatu dela ziurtatzen dugulako, eta bide batez lehen zeuden aitzakiak kentzen ditugu; AMPA da gehien bat erabiltzen duenak. Kurtso hasieran mugikorrek eskatzen dira talde bat osatzeko eta bertatik mezuak helarazi ahal izateko, haien parte hartzeaz aparte.

7. Gurasoen parte hartzea eskatzen duzunean erantzun ona jasotzen duzue?

Orokorrean feedback-a oso ona da eta haien laguntza behar denean ondo erantzuten dute gai konkretuetan (lanbideak, animaliak), baina guraso eskolara etortzea eta erakartzea ez da hain erraza.

8. Gurasoen inplikazio maila nahikoa da edo hobetu daiteke?

Inplikatzan diren gurasoen inplikazioa noski egokia da, arazoa beste guztien parte hartze maila da. Jakina hobetu beharko litzatekeela, gauza da ez dakigula nola ailegatu guraso horiei hona erakartzeko eta etortzeko.

9. Gurasoak interesatuak daudela esango zenuke? Eta interes hori handiagotzeko zerbaitegiten duzue?

Gurasoek interesa adierazten dute, lehen esan dudana bezala, eskolako jai handietan, etab. Gehienbat, etortzen diren familiak gutxien behar dutenak dira eta benetan behar dutenen inplikazioa askoz txikiagoa da. Arazoa da familia konkretu batzuei begira egiten direla bilerak eta hauek ez direla agertzen. Oso zaila da familia hauen interesa piztea ezin dugulako derrigortu bileretara eta tailerretara joatea.

Sustapena egiten dugu familiei deitzen, azaltzen zeri buruz izango den hitzaldia, zeinen komenigarria izango zen haien umeentzat, etab. Baina azken finean, haiek ez badute nahi gutxi egin daiteke.

10. Ekarpenari dagokionez, familia eta irakasleena berdina da? Garrantzi bera ematen zaie?

Ez zaie bera ematen. Gaur egun ez zaie garrantzia neurri berean ematen, eta niretzat parekatuta daude, iritzi kritikoa izanda noski bakoitzaren ekarpena desberdina delako. Hau horrela da arrazoi batzuegatik; esaterako, batzuetan ikusten da irakasleok ez diegula gurasoei ikastolaren parte izaten uzten eta "irakasle esparrua" mantentzen dugula ematen du. Hau batez ere, urte asko daramatzaten irakasleekin gertatzen da ikastola haien esparrua dela uste baitute eta gehiago kostatzen zaie gurasoak ikastolako esparruan modu zuzenago batean sartzea. Ez dute lotura ikusten, ezta nola bion artean umeentzako gauza hobeagoak egin ditzakegula. Irakasle gazteak hobekuntza nabarmena izan dute arlo honetan, ikusten dute familia-eskola arteko harremana oso garrantzitsua dela umearen ikaskuntzaz hitz egitean. Kritikoak izan behar gara bi aldetatik, bai irakasleak bai familiak, guk esparrua jaten utzi behar diegulako familiei eta familiek ikusi behar dute haien inplikazioa eta ekarpenak oso garrantzitsuak direla ikastolarako eta oro har, umeentzako.

Erlazio zuzena izatea gauzarik garrantzitsuena iruditzen zait horrela gauza gehiago lortzen direlako umeekin. Familiaren inplikazioa zuzenki jotzen du umearen lorpenetan eta baita inplikazioan ere. Umeeik ikustean familiek beraiekin denbora ematen dutela haien inplikazioa eta motibazioa ikastolan igotzen da.

11. Gurasoen inplikazioa eta parte hartzea sustatzeko ideiarik daukazue hurrengo urteetarako?

Gaur egun ez dago aldaketa egiteko asmorik, ez zuzendaritzan ez beste irakasleotan. Nire ideia dago bi urteetan erretiratuko naizela eta orain ez dut ideia berririk. Gazteak izan behar dira ideia berriak ekarri behar dituztenak, baina zoritxarrez, ez dute zuzendaritza hartu nahi eta ez dute ideia berririk ezartzeko asmorik.

Beste ikastoletan agertu da “Comunidades de aprendizaje” deitutako ideia zeinetan sartzen dira bai ikasleak bai familiak bai irakasleak. Hemen adibidez, Aranbizkarrako ikastolan erabiltzen dute metodologia hau.

12. Betidanik horrela izan da edo aldaketarik eman da gurasoen parte hartzean?

Urte batzuk lehenago ikastola pribatua zen, patronala esaten den bezala, irakasleak ziren langileak eta gurasoak patronalak; hau da, haiek eramaten zuten ikastola. Beraiek agintzen zuten, pedagogikoa den horretan izan ezik, baina beste guztietan bai, zuzentzeko eran, etab. Gurasoek zuten botere gehiena eta irakasleak hauen soldatapean zeuden; ikastolako arlo askotako azken hitza gurasoena zen (egutegia, ordutegia, etab.). Pedagogikoa den arloan, orduan ez zeuden testu libururik eta proiektu desberdinekin lan egiten zuten. Publikoa bilakatzean, 1994an, gauza aldatzen hasi zen. Hor jada, ez ziren haiek agintzen zutenak, ez ziren nagusiak. Irakasleek botere hau bereganatu zuten eta flexibilitate gehiago lortu zuten haien ideiak burutzeko. Gainera, hasieran Gasteiz osotik etortzen zen jendea eta behin publiko bihurtzean lehentasuna zuten auzoko ikasleak.

Ni publikoaren alde jotzen dut, bai irakasleon boterea handiagoa delako bai euskaraz ikasteko aukera jende gehiagori eman diezaiekegulako. Baita ere, erabakitzeke ahalmen gehiago dutelako irakasleak.

Iturria: Alcalá, Martín & Ruiz, 2015; Armas, 2012; Carrascosa & Fernández, 2017; Orientación Andújar, 2017; Survey monkey, d.g. Egokitua.

Umandi Ikastolako irakasleari egindako elkarrizketa (Eranskinak II)

1. Garrantzitsua dela deritzozu familien inplikazioa hezkuntza prozesuan?

Horrela izatekotan, zergatik?

Nik uste dut ezinbestekoa dela gurasoen inplikazioa; beraiek jakin behar dute nola doazen aurrera beraien umeak eta animatu eta lagundu behar diete beraien heziketa integral horretan. Ikastolako lana oso garrantzitsua da noski, eta irakaslea horretan laguntzen ditu, baina ikaskuntza esanguratsura iristeko etxean ere lan egin behar da eta seme-alaben ikaskuntza prozesuari denbora eskaini.

2. Gurasoak inplikaturik daudela iruditzen zaizu?

Nahi nukeena baina gutxiago. Egia da hizkuntzaren oztopoarekin topatzen direla baina askotan uste dut hizkuntza eta umeek izan behar duten ardura beraien lana ez egiteko aitzakiak direla.

3. Gurasoen parte hartzea eskatzen duzunean erantzun ona jasotzen duzu?

Lehen esan dudan bezala, batzuen aldetik oso ona eta beste batzuen aldetik, ezer. Badaude guraso batzuk asko inplikitzen direla eta ahal duten guztia egiten dutela ikastolan parte hartzeko, baita haien seme-alaben hezkuntzan; esaterako, aukera eskaintzen zaienean adituak diren gai bat klasean hainbat saioetan zehar lantzeko.

4. Ikasgelan gurasoek parte hartzen dute? Horrela izatekotan, nola?

Parte hartzeko aukera ematen zaie baina gutxitan hartzen dute; badaude 2-3 beti prest eta besteok paso egiten dute. Nola? Ikastolak antolatzen dituen festetan, gelako irteeretan, gelarako azalpen edo elkarrizketa batean, etab.

5. Parte hartze hori nahikoa dela esango zenuke edo handiagoa izatea gustatuko litzazuke?

Gustatu bai, ondo antolatuta eta aprobetxagarria bada noski, baina ulertzen dut baita gure ordutegia ez dela oso egokia etxetik kanpo lan egiten dutenentzat. Gehienbat, gurasoen muga hizkuntza izan ohi da. Baina ikastolatik ez zaio arreta horri ematen eta saiatzen gara beste klaseetan sartzen gurasoen ekarpen hau; adibidez lanbidetaz hitz egitean, etab. Gurasoek hor aukera

badaukate. Badakit zaila dela ordutegi honetan, lana dela eta, denak etortzea baina egia da guraso askok jarraitzen dutela pentsatzen ikastola esparru aparte bat dela; hau da, haiek pentsatzen dute: “hau ez da nire lana, nik hemen uzten ditut umeak eta hau irakasleen ardura da”. Ikusten dut jende ezberdina dagoela, nahiz eta euskara ez jakin inplikatzeko direnak eta edozer gauzetarako bertan daudenak; ordea, beste batzuk nahiz eta ahal izan ez dute ezer egiten.

6. Handiagoa nahi izatekotan zein eremutan?

Edozein eremu interesgarria izan daiteke beraiek ikusteko ikastolak baduela lotura kalekoarekin. Bat esan behar badut, eskulanetan zaila egiten zait 24 ikasleekin gauza interesgarri batzuk lantzea. Baina, edozein gaitan laguntza eskertzekoa izango litzateke; izan ere, kanpotik gai batean aditua den norbait ikustea umeentzat erakargarria da eta aldi berean esanguratsua.

7. Irakasle zaren moduan zerbait egin dezakezula deritzozu? (inplikazioa edo parte hartzea sustatzeko eta handitzeko).

Beti animatzen ditut batez ere seme-alaben jarraipena egiteko, eta aldi berean, umeekin beraien ardurak lantzen ditut.

8. Gurasoei plazaratzen zaien informazioa egokia eta nahikoa dela iruditzen zaizu? Irakasle-gurasoen arteko komunikazioa egokia dela uste duzu?

Nik uste dut nahi badute jarraipen bat egin, informazioa ez zaiela falta, eta nire aldetik, ez diet oztoporik jartzen nirekin harremanetan egoteko. Esaterako, kurtso hasieran egiten den bileran gurasoei ikasturte horretan egingo diren gauzetaz informatzen zaie, datak ematen zaizkie, etab. Gainera, irakasle aldaketak direla eta irakasle bakoitzak erabiltzen duen metodologia azaltzen zaie, nola funtzionatuko duen eta zein izango den ikasturtea aurrera eramateko modua. Horren aurrean eta honetan zehar, edozein momentutan galderak egiteko aukera ematen zaie baita zalantzak argitzeko aukera ere. Horretarako, emaila eta telefonoa eskaintzen zaie komunikazioa uneorokoa izateko.

9. Bilerak zuk eskatuta izaten dira edo haiek zuregana jotzen dute haien seme-alaben garapenari buruz jakiteko?

Denetarik. Batzuetan beraiek eskatzen dute, beste batzuetan nik, eta kasu batzuetan nahiz eta emaitza desagokiak ikusi, ez dute bilera eskatzen nik deitu arte. Hor baita gurasoen inplikazioa ikusten da, bilerak eskatzerakoan. Gauza

guztietan bezala badaude guraso batzuk seme-alaben hezkuntzan oso inplikaturik daudenak, zenbait kasutan gehiegi esango nuke, eta beste batzuk paso egiten dute.

10. Nabaritzen da ikasle baten gurasoak inplikaturik daudenean haien seme-alaben hezkuntza prozesuan?

Noski, oso nabaria da familiaren eragina; nahiz eta ume baten gurasoak ez ezagutu, egunerokotasunean garbi geratzen da zein nolako familia duen. Askotan umeak etxeko lanak egin gabe etortzen dira ikastolara, eta hor gurasoen inplikazioa agerian uzten da. Argi daukat familia askok ez dakitela euskara eta horrelakoetan ezin dutela lagundu, baina mapak edo gaztelerazko lanak bidaltzen direnean lagundu dezakete eta suertatzen da hauek ere egin gabe ekartzen dituztela edo gaizki eginda. Guraso batzuek ardurarik ez dute ikusten dut. Badaude batzuk erdipurdi dabilzanak baina etxean laguntza dutenez aurrera egiten dutenak; ordea, hobeto dabilzan batzuk etxean ez dutenez inolako jarraipenik, haien atzean ibili behar zara hauek aurrera egin dezaten. Orain ondo joango dira gu hor gaudelako, baina hurrengo urtean DBHn horrelako jarraipena ez dute izango eta zeinek daki zer gertatuko den ume horiekin. Lortu behar da independenteak izatea eta ez atzetik ibiltzea, eta honetarako laguntza behar dugu etxean ere.

11. Zein aukera ematen diezu gurasoei?

Beti esaten diet gurasoei eskola ez dela zerbaite itxia, umeak ikastera datozela baina ez dela bakarrik ikasten hemen, edozein lekutan lortu daitezkeela hori. Azken finean haiek lortu behar dutena umeak independenteagoak izatea da. Honetaz aparte, gurasoek umeen ardurarik ez izan behar dituzte. Bai irakasleok bai gurasoak izan behar gara horren atzetik egon behar garenak, bakoitza bere moduan. Badaude ume batzuk zeintzuen gainean ez den egon behar eta beste batzuekin ordea bai, ikusi behar da zein den ume bakoitzaren egoera eta beharra. Bakoitzak ezagutu behar du nola den beraien umea eta jarraipen bat eman behar zaio etxean, ohiturei, ikasketei, etab. Ikastolan gurasoei esaten zaie zein den ikastolaren plana, zer den lortu nahi dena, metodologia, landuko diren gaiak, etab. Azaltzen zaie baita ere irakaslearen metodologia zein den eta horretaz aparte, irakaslearekin kontaktuan egon daitezkeela oso garbi usten diet (telefonoz, emailaren bitartez). Nahiz eta ni ez deitu haiek bilera bat egiteko beharra ikusiz gero aukera luzatzen diet haiek bilera antolatzeke. Are gehiago, umeak partikularretan badaude ere esaten diet

nirekin kontaktuan jartzeko partikularretakoak landu behar dituen gauzak azaltzeko. Kurtso hasieratik esaten da hau. Horrez gain, azaltzen zaie ere gurasoen aportazioa ikastolan ongi etorria dela, hainbat arlotan gonbidatzen zaie ikastolan laguntzeko. Laguntza bide askotatik izan daiteke, laguntza emateko, bai jorratzen diren gaiei buruz hitz egiteko, baita irteeretan laguntzeko ere. Ikastolak ez dauka inolako arazorik.

Nik faltan gehien botatzen dudana etxetik jarraipen bat egitea da. Azken urteotan ikusten ari naiz hau. Jarraipenarekin diot, gutxienez jakitea zer egiten ari diren eskolan, nahiz eta ez jakin zer egin behar duten. Baina gutxienez jakitea nola egiten duten lan haien seme-alabak.

12. Aldaketak izan dira azken urteetan?

Nire ustez, lehen inplikazio gehiago zegoen, ardura gehiago familietan. Orain jendea ez dago hain inplikaturik, ez dakit lanarengandik izango den edo ideiak aldatu direlako. Askotan oso deigarria egiten zait umeen hiztegi falta baina ez euskaraz, gaztelaniaz. Batzuetan iruditzen zait familiak ez direla elkartzen egunean zehar afaltzeko momentua kenduta. Ematen du umeak aparatuen munduan bizi direla, ez dutela familiarekin kontakturik ezta elkarrizketik ere, eta hau nabaritzen da hiztegi faltan, komunikatzeko arazoetan, etab. Etxekoekin lotura falta dagoela ikusten dut, momentu horiek non hitz egiten den, filmak aztertzen diren, egunari buruz hitz egiten den, etab. Horrek guztiak, zailtasun asko dakartza berekin eta urtetik urtera zailtasun gehiago agertzen ari dira (psikologo gehiago, laguntza gehiago). Familien inplikazioa zuzenki eragiten du umearen inplikazioan eta gozamenean gelan, ume horiek edozein gaiz hitz egin nahiko dute, albisteak ekarriko dituzte eta horretaz hitz egiten saiatuko dira. Ordea, etxean inplikazio hori ez daukaten umeek ez dituzte gai gehienak gustuko izango, bakarrik teknologiek erlazionatuta daudenak.

Iturria: Alcalá, Martín & Ruiz, 2015; Armas, 2012; Carrascosa & Fernández, 2017; Orientación Andújar, 2017; Survey monkey, d.g. Egokitua.

Umandi Ikastolako dokumentuen analisia (Eranskinak III)

DOKUMENTUEN ANALISIA: Umandi Ikastolako Hezkuntza Proiektua (d.g.) eta Urteko Plana (2019)			
IKERGAIAK	BAI	EZ	ANALISIA
Umandi Ikastolako dokumentu nagusietan gurasoen garrantzia islatuta agertzen da.	O		Ikastolak talde lanaren alde egiten du ikasleei, familiei eta irakasleei mintzatzeko eta parte hartzeko bideak eskainiz, guztiek ikastetxearen antolaketan eta garapenean dagokien gaitasun-esparrutik laguntza sustatzeko.
Dokumentu bi hauetan gurasoen inplikazioa eta parte hartzea azpimarratzen da.	O		Talde lanak eskatzen duen inplikazioa eta parte-hartzearen kultura lortzeko jarduerak bultzatzen dituzte familiekin harremanak bermatuz.
Gurasoen parte hartzea eta inplikazioa zehazten duen atalen bat ageri da bi dokumentu hauetan.		O	Ez da ezer agertzen.
Ikastolako helburuetako bat ikastolako komunitatea osatzen duten eragile guztien arteko harremana indartzea da.	O		Haienezako oinarri esanguratsu bat da talde lanean aritzea da, guztiok (hezkuntza komunitateak) printzipioak ildo beretik eramanez eta elkarrekin ikastetxean eta inguruan antzematen dituzten hutsuneak identifikatuz eta hauei erantzun egokiak bultzatuz.

Gurasoen garrantzia Lehen Hezkuntzako helburuetan adierazten da.		O	Helburu orokorretan baino ez da gurasoen garrantzia adierazten.
Etorkizunari begira, familien inplikazioa eta parte hartzea sustatu eta hobetzeko aipamenik ageri da.		O	Ez da ezer agertzen.

Iturria: Navaridas & Raya, 2012. Egokitua.

Umandi ikastolako gurasoei pasatutako inkesta (Eranskinak IV)

1. Zuen seme-alaben hezkuntza prozesuan parte hartzen duzue edo inplikatzeko zarete?

BAI EZ

*Erantzuna bai izatekotan, zertan?

2. Gustatuko litzaizueke zuen seme-alaben hezkuntza prozesuan parte hartze zuzena izatea ikastolan? BAI EZ

*Arrazoitu erantzuna.

3. Zuen parte hartzea/inplikazioa nahikoa dela uste duzue? BAI EZ

*Arrazoitu erantzuna.

4. Zuen inplikazioa seme-alaben hezkuntzan eragina duela uste duzue?

BAI EZ

*Arrazoitu erantzuna.

5. Uste duzue zuen seme-alaben ikastetxeak hauen hezkuntza prozesuan parte hartzeko modu desberdinen berri ematen dizuela?

BAI EZ

*Arrazoitu erantzuna.

6. Zerk eragozten du zuen seme-alaben hezkuntza prozesuan modu aktibo batean parte hartzea?

1. Participáis en el proceso educativo de vuestros/as hijos/as y os implicáis en el?

SI NO

*En caso de que la respuesta sea si, en qué?

2. Os gustaría participar de manera directa en el proceso educativo de vuestros/as hijos/as en la escuela?

SI NO

*Razona la respuesta.

3. Consideráis que vuestra implicación y participación es suficiente?

SI NO

*Razona la respuesta.

4. Consideráis que vuestra implicación repercute en el proceso educativo de vuestros/as hijos/as?

SI NO

*Razona la respuesta.

5. Consideráis que el centro escolar de vuestros hijos/as os informa de manera adecuada sobre diferentes formas de participar en el proceso educativo de estos/as?

SI NO

*Razona la respuesta.

6. Qué es lo que os impide participar activamente en el proceso educativo de vuestros hijos/as?

Iturria: Alcalá, Martín & Ruiz, 2015; Armas, 2012; Carrascosa & Fernández, 2017; Orientación Andújar, 2017; Survey monkey, d.g. Egokitua.

1. Participáis en el proceso educativo de vuestros/as hijos/as y os implicáis en el?

SI

NO

*En caso de que la respuesta sea si, en qué?

Intentamos de que haga sus trabajos y deberes, de que oneste en el margen y que se implique más.

2. Os gustaría participar de manera directa en el proceso educativo de vuestros/as hijos/as en la escuela?

SI

NO

*Razona la respuesta.

No podría, porque no tengo tiempo, tengo 4 hijos y se me hace difícil porque tengo que hacer muchas cosas.

3. Consideráis que vuestra implicación y participación es suficiente?

SI

NO

*Razona la respuesta.

Aún teniendo tan poco tiempo, el tiempo que empleamos con el es suficiente y adecuada.

4. Consideráis que vuestra implicación repercute en el proceso educativo de vuestros/as hijos/as?

SI

NO

*Razona la respuesta.

En mi opinión no repercute porque intentamos respetar el hecho que tiene que hacer trabajo en casa modestamente.

5. Consideráis que el centro escolar de vuestros hijos/as os informa de manera adecuada sobre diferentes formas de participar en el proceso educativo de estos/as?

SI

NO

*Razona la respuesta.

Yo creo que no, porque que yo sepa a mi sus tutoras nunca me han hablado de eso, ni siquiera he recibido emails ni cartas ni alguna nota.

6. Qué es lo que os impide participar activamente en el proceso educativo de vuestros hijos/as?

Mayormente la falta de tiempo, pero intentamos lo mejor posible para ayudar y participar activamente en el proceso educativo de los hijos.

GURASOEI PRESTATUTAKO INKESTA

1. Zuen seme-alaben hezkuntza prozesuan parte hartzen duzue edo inplikatzeko zaretxe?

BAI EZ

*Erantzuna bai izatekotan, zertan?

Eskolan egiten duten lanetan eguneroko jarduerak egiten ditugu eta laguntza behar denean gero eskaintzen ditugu

2. Gustatuko litzazuke zuen seme-alaben hezkuntza prozesuan parte hartze zuzena izatea ikastolan?

BAI EZ

*Arrazoiu erantzuna.

Jada eskola kontseiluko kide gara

3. Zuen parte hartzea/inplikazioa nahikoa dela uste duzue?

BAI EZ

*Arrazoiu erantzuna.

Duak ere soluzio jakin gero soluzio inplikazioa gustatzen du

4. Zuen inplikazioa seme-alaben hezkuntzan eragina duela uste duzue?

BAI EZ

*Arrazoiu erantzuna.

Hainbat nazioarteko gure laguntza behar duela aurre egiten dugu

5. Uste duzue zuen seme-alaben ikastetxeak hauen hezkuntza prozesuan parte hartzeko modu desberdinen berri ematen dizuela?

BAI EZ

*Arrazoiu erantzuna.

Informazioa da garrantzitsua gaitzate duintza desberdinetan parte hartzeko

6. Zerk eragozten du zuen seme-alaben hezkuntza prozesuan modu aktibo batean parte hartzea?

Uste dugu modu aktiboan parte hartzen dugula

1. Participáis en el proceso educativo de vuestros/as hijos/as y os implicáis en el?

SI NO

*En caso de que la respuesta sea si, en qué?

ESTOY AL CORRIENTE DE LAS MATERIAS, DEBERES, EXAMENES ETC. DE TODAS LAS ASIGNATURAS DE MIS DOS HIJOS

2. Os gustaría participar de manera directa en el proceso educativo de vuestros/as hijos/as en la escuela?

SI NO

*Razona la respuesta.

ESTOY DE MALERA CASUAL EN LOS DOS AMPAS DE MIS DOS HIJOS (DIF. CENTROS)

3. Consideráis que vuestra implicación y participación es suficiente?

SI NO

*Razona la respuesta.

ME GUSTARÍA PODER ZELAR MÁS TIEMPO PODRÍA IMPLICARME DE MALERA MÁS DIRECTA.

4. Consideráis que vuestra implicación repercute en el proceso educativo de vuestros/as hijos/as?

SI NO

*Razona la respuesta.

EN MUCHAS OCASIONES ELLOS VIVEN QUE TIENEN UNA SUPERVISION POR PARTE DE NOSOTROS Y NO PUEDE DEJARSE QUELVAR POR LA EDAD?

5. Consideráis que el centro escolar de vuestros hijos/as os informa de manera adecuada sobre diferentes formas de participar en el proceso educativo de estos/as?

SI NO

*Razona la respuesta.

CON CORREOS ELECTRONICOS DEL AMPA - ESCUELA DE PADRES, ETC.

6. Qué es lo que os impide participar activamente en el proceso educativo de vuestros hijos/as?

FALTA DE TIEMPO (PRO) FUERA DE CASA (AMPA, ESCUELA DE PADRES, ...) EN LO QUE EN CASA SE RETIENE CREO QUE PARTICIPAR ACTIVAMENTE HAY VECES QUE INCLUSO DEMASIADO

1. Participáis en el proceso educativo de vuestros/as hijos/as y os implicáis en el?

SI NO

*En caso de que la respuesta sea si, en qué?

En la aclaración de dudas al realizar los deberes y preparación de exámenes

2. Os gustaría participar de manera directa en el proceso educativo de vuestros/as hijos/as en la escuela?

SI NO

*Razona la respuesta.

Creo que la participación es adecuada, no veo necesario implicarse más. No somos profesionales en esa materia y podemos cometer errores.

3. Consideráis que vuestra implicación y participación es suficiente?

SI NO

*Razona la respuesta.

De hecho, creo que actualmente hay un exceso de implicación por parte de los padres. En otros tiempos yo era mucho más independiente y eso reforzaba su responsabilidad.

4. Consideráis que vuestra implicación repercute en el proceso educativo de vuestros/as hijos/as?

SI NO

*Razona la respuesta.

El interés de los padres repercute en su motivación en la realización de tareas pero también tiene desventajas como es la dependencia del progenitor al recibir

5. Consideráis que el centro escolar de vuestros hijos/as os informa de manera adecuada sobre diferentes formas de participar en el proceso educativo de estos/as?

SI NO

*Razona la respuesta.

Con charlas y talleres a lo largo del curso

6. Qué es lo que os impide participar activamente en el proceso educativo de vuestros hijos/as?

La falta de tiempo, la acumulación de tareas diarias.